

Euskal banakariak: zilegiztatze baldintzak eta gaur egungo erabilera

Gradu Amaierako Lana

Euskal Ikasketak

Egilea: Laia Solé Arrue
Tutorea: Myriam Uribe-Etxebarria

Euskal Ikasketak
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
2021-2022 ikasturtea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

0. LABURPENA¹

Euskaraz zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia erantsiz sortzen dira banatzaile edo distributiboak deritzogun zenbatzaileak (Alberdi et al. 2018).

Banakariak ez dira hizkuntza guztietan agertzen eta horretaz gain, gramatika baldintza batzuk bete behar dituzte. Hori dela eta, ikuspuntu linguistikotik ikergai bereziki interesgarria da.

Lan honen helburua bikoitza da. Alde batetik, gaztelera eta euskara erkatu eta euskal banatzaileen zilegitze baldintzak aurkeztuko ditugu. Beste aldetik, euskaraz zenbatzaile banakariak badaude ere, beraien erabilera gero eta txikiagoa da. Lan honen bigarren helburua, beraz, zenbatzaile banakarien gaur egungo erabilera aztertzea da. Horretarako, Iker laborategian garatutako *Norantz* proiektuaz baliatuko gara, eta proiektu honen bidez banakariei buruz bildutako datuak aztertuko ditugu, Iparraldeko euskaraz zenbatzaile hauen erabileraren nondik norakoak aztertzeko asmoz. Irudi orokorragoa osatzeko asmoarekin, nire kabuz Hegoaldeko Arrasate eta Aretxabaleta (Gipuzkoa) herrietan bildutako datuak ere aztertuko ditugu. Izan ere, lagina txikia bada ere, abiapuntu bat eskaintzen digu Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaraz egon daitezkeen aldeak aztertzeko. Lanean zehar aztertuko diren egiturak ezberdinak direnez, ikerketa honek aukera ematen du egiturazko baldintzek erabileran izan ditzaketen eragina ere aztertzeko.

Horretarako, lan hau bi atal nagusitan banatu dugu. Lehenengo atalean, banakariak zer diren eta nola sortzen diren azalduko dugu eta hauen propietateak zeintzuk diren zehaztuko dugu. Honekin batera, banakariak agertzen dituen eta euskararen auzo-hizkuntza den hizkuntza batekin konparaketa laburra egin dugu, zehazki euskal banakariak gaztelerazko *sendos* banakariarekin erkatuko ditugu. Izan ere, hizkuntza hauek ezaugarri linguistiko ezberdinak izan arren, euskaraz banakarien zilegitze baldintzak zeintzuk diren

¹ Eskerrak eman nahi nizkioke lan honetan tutore gisa izan dudana Myriam Uribe-Etxebarriari. Batetik, gai erakargarri hau proposatzeagatik eta, bestetik, lana aurrera eramateko lagundu didan guztiagatik.

argitzen lagundu digu gaztelaniaz banakariak nola funtzionatzen duten aztertzeak, euskararen kasuan banakariak buruz egin diren lan gehienak oso deskriptiboak izan baitira.

Lanaren bigarren atalean, ekarpen txiki bat egin nahi izan dugu ikerketaren ikuspuntutik. Horretarako, oraindik aztertu gabe dauden *Norantz* proiektuak bildutako banakariak datuetan oinarrituz, ikerketa txiki bat aurkeztuko dugu gaur egun Iparraldeko hiztunek banakariak nola eta zenbat erabiltzen dituzten aztertze asmoz. Horrez gain, Iparraldeko egoera eta Hegoaldeko egoera alderatu nahi izan ditugu. Horrela, *Norantz* proiektuak eskaintzen dizkigun Iparraldeko hiztunen eta Hegoaldeko hiztunen datuak estatistikoki aztertu ditugu, Euskal Herrian banakariak erabileran joera berdina ageri den eta banakariak erabilera antzekoa den ikusteko asmoz.

Emaita nagusien laburpen txikia:

a) Banakariak perpausa gramatikala izateko bete beharreko baldintzei dagokienez, bi joera nagusi nabarmendu ditugu bai Iparraldeko eta bai Aretxabaleta-Arrasate inguruko hiztunetan. Batetik, Petrirenak (2011) bere lanean aipatu bezala, hainbat hiztunek banakariak beste distributibo batekin erabiltzeko joera dute, banakariak distributibo diren heinean perpaus berean beste distributiborik behar ez badute ere. Bestetik, gramatika liburuetan egindako deskribapenen arabera aditzarekiko komunztadurak singularra edo plurala izan behar du banakaria sortzeko daukagun zenbatzailearen arabera; hau da, *bat* zenbatzailearekin singularra eta gainontzekoekin plurala (Alberdi et al. 2018). Hala ere, aztergai ditugun hiztunen datuetan hiztun ugari propietate hau ez dutela betetzen ondorioztatu ahal izan dugu.

b) Bai Iparraldean eta bai Aretxabaleta-Arrasate inguruan banakaria sortzeko behar dugun zenbatzaileak gora egin ahala, jaitsi egiten da banakariak erabilera. Bestalde, ohikoagoa da banakariak osagarri funtzioa betetzen dutenean topatzea, adjunktua funtzioa betetzen dutenean baino.

c) Iparraldeko eta Aretxabaleta-Arrasateko hiztunek banakarien erabileraren gainean eskainitako datuen arteko konparaketa egiten badugu, berriz, Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen kasuan banakarien erabilera handiagoa egiten dutela ikusi dugu. Beraz, Iparraldean banakarien galera gertatzen ari den bitartean Aretxabaleta-Arrasate inguruan oraindik nahiko indartsu mantentzen direla ondoriozta dezakegu. Hala ere, arrazoiak ez dakizkigun arren Iparraldean gazteen artean nabaritzen da erabilera altuena (batez ere euskalki lapurtarra darabiltzaten hiztunetan) eta hori datu esperantzagarria izan daiteke.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	6
2. Banakariak.....	7
2.1. Gaztelerazko <i>sendos</i>	7
2.2. Banakariak euskaraz: <i>-na</i> atzizki distributiboa.....	11
3. Banakarien erabilera euskaraz gaur egun.....	16
3.1. Iparraldeko erabilera: <i>Norantz</i> proiektuaren emaitzen azterketa.....	17
3.1.1. <i>Norantz</i> proiektua eta profil linguistikoak	17
3.1.2. Aztergai ditugun egiturak.....	20
3.1.3. Emaitza orokorrak.....	21
3.2. Hego Euskal Herriko banakarien erabilera: Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera darabilten hiztunen laginaren azterketa.....	28
3.2.1. Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera eta profil linguistikoak....	28
3.2.2. Aztergai ditugun egiturak.....	29
3.2.3. Emaitza orokorrak.....	32
4. Ondorio orokorrak.....	38
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	42
I. Eranskina.....	44
II. Eranskina.....	46
III. Eranskina.....	55
IV. Eranskina.....	59

1. SARRERA

Gradu amaierako lan (Gral) honen helburu nagusia banakariak aztertzea da. Izan ere, teoria linguistikoaren ikuspuntutik ikergai hau bereziki interesgarria da: alde batetik, banakariak ez direlako hizkuntza guztietan agertzen; bestetik, aurrerago azalduko ditugun baldintza sintaktiko jakin batzuk bete behar dituztelako. Euskaraz banakariak modu errazean sortzen dira: edozein zenbaki zehazturi (*bat, bi hamar, ehun...*) -na atzizkia gehitzean sortzen dira (Zubiri eta Zubiri, 1995).

Hala ere, esan berri dugun bezala, kontuan hartu behar dugu banakariak deritzogun hauek ez direla hizkuntza guztietan agertzen. Honen zergatia argi ez badago ere, interesgarria iruditu zaigu banakariak agertzen diren hizkuntza horietan banakarien sistemak erkatzea, eta banakariak baldintza sintaktiko berdinak betetzen dituzten edo ez ikustea. Munduan hizkuntza ugari dago eta lan izugarria litzateke hizkuntza guztietan banakariak ageri diren ala ez begiratu eta horiek aztertzea. Horregatik, lan honen mugak kontuan hartuta, euskararen eta aldamenean daukagun hizkuntza bakar batekiko konparazioa egitea erabaki dugu; hau da, euskara eta gaztelaren banakarien arteko konparazioa, izan ere, gaztelaniak ere banakariak ditu: *sendos*. Gramatika teoriaren aldetik ere, gaztelaniaren kasuan banakarien deskribapen sakonagoak egin dira euskaraz baino. Horregatik, bi hizkuntza hauen banakarien arteko konparaketa egitea lagungarria izango litzatekeela iruditu zaigu, batak eta besteak berdin edo desberdin jokatzen duten eta berdintasun horiek noraino iristen diren ikusteko.

Banakarien baldintza sintaktikoak zeintzuk diren ezagutu eta gero, aztertutako egituretan baldintza horiek betetzen diren ikustea da gure asmoa. Horretarako, Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunen (Aretxabaleta-Arrasate, Gipuzkoa, inguruko hizkera darabiltenak zehazki) banakarien erabilera nolakoa eta zenbaterainokoa den aztertu dugu. Aurrerago ikusiko dugun gaztelaniaren kasuak erakusten duen moduan, banakariak gero eta gutxiago erabiltzeko joera dagoela ematen du. Lan honen bidez, leku batean bestean baino azkarrago (edo egitura jakin batzuetan bakarrik) galtzen ari diren ikusteko aukera izango dugu. Iparraldeko hiztunen banakarien erabilera aztertzeko, *Norantz datu basea* erabili dugu

corpus gisa eta Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera darabilten hiztunena aztertzeko, berriz, egindako inkesta baten bidez lortu ditugu datuak. Iparraldeko eta Hegoaldeko emaitzak konparagarriak izan zitezen, Aretxabaleta-Arrasateko hiztunei eskainitako inkesta prestatzerako orduan, *Norantz* proiektuan erabilitako egitura berberak erabili ditugu.

2. BANAKARIAK

Esan bezala, atal honetan gaztelaniazko eta euskarazko banakariak deskribatu eta sintaktikoki baldintza berdinak betetzen dituzten ikustea da gure helburua. Lehendabizi, gaztelaniazko *sendos* deskribatu eta bete behar dituen baldintza sintaktikoak zeintzuk diren azalduko dugu eta ondoren, euskarazko *-na* atzizkia deskribatu eta atzizki banakari hau daraman osagaiak aurrekoaren baldintza berberak bete behar ote dituen (edota beste baldintza desberdin batzuk) eztabaidatuko dugu. Besteak beste, i) forma hauek duten emankortasuna, ii) zilegituak izateko behar dituzten aurrekariak eta iii) perpausaren barruan izan dezaketen funtzioa aztertuko ditugu.

2.1. Gaztelerazko *sendos*

Sendos zenbatzaile distributiboa da eta numeroari dagokionez zehaztugabea. Gramatikek determinatzaile zehaztugabeekin aipatu ohi dute eta zenbakizko adjektibo distributibo bezala deskribatzen (Bosque, 1992). Interesgarria da aipatzea *sendos* gaztelaniaz denboran iraun duen distributibo bakarra dela; hortaz, garai batean latinez zenbatzaile adina banatzaile zeuden, egun euskaraz gertatzen den bezala² (Bosque, 1992, 60-61.or.). *Sendos*-en itzulpenari dagokionez, Bosquek (1992) honela egiten du: *uno (a/para...) cada uno de ellos*; euskaraz, *bat bakoitza(-k/-ri/-rentzat...)>*.

2. ...Los numerales en español se suelen clasificar en ordinales y cardinales. El latín permitía una tercera clase: la de los distributivos. Así, para el número 1 el latín poseía el cardinal *unus*, el ordinal *primus* (*primero*) y el distributivo *singulos* (*uno a cada uno*), del que deriva nuestro "sendos". Esas posibilidades morfológicas se daban para cualquier numeral [...]. Con algunas excepciones, el numeral distributivo se obtenía con el sufijo *-ēni -ae -a*. Así pues existían tantos distributivos como numerales[...]. [Bosque 1992: 60-61]

Hala ere, Bosquek eta Demontek (1999) diotenez, gaur egun *sendos*-en erabilera hizkuntza-maila jakin batzuetara mugatuta dago, eta ez da oso ohikoa ahozko hizkeran edota hizkera ez formalean. Aipatzekoa da Germaniar hizkuntzetan eta gainerako hizkuntza erromantzeetan (katalanezko *sengles* eta antzin portuguesaren *senhos* alde batera utzita) ez dagoela *sendos*-en baliokiderik; horregatik, oso zaila izaten da kuantifikatzaile honen hitzez hitzeko itzulpena egitea (Bosque, 1992, 59-61.or.). Hala ere, euskaraz *-na* atzizkiaren bidez banakariak lortzeko aukera dagoenez, euskarazko eta gaztelaniazko bi forma hauen sintaxiaren mugak zehaztasun handiagoz aztertzeko aukera dugu.

Sendos-ek bete beharreko baldintza sintaktikoekin hasteko, *sendos*-ek perpausean gutxienez bi izen-sintagma egotea eskatzen duela esango dugu. Bata, *sendos*-en aurrekaria dena eta kantitatea adieraziko duena, eta bestea *sendos*-ek erreferentzia egiten diona (López, 1985, 77.or.).

(1) *Los profesores han comprado sendos libros.*

Erreferentzia egiten dion IS-rekin (*libros*) eta haren aurrekaria denarekin (*los profesores*) erlazio distributibo egokia edukitzeko jarraian azalduko ditugun egiturazko baldintza jakin batzuk bete behar dira.

Hasteko, *sendos*-en aurrekaria (aurreko adibideko subjektua adibidez) sintaktikoki eta semantikoki plurala den izen sintagma bat izan behar da edo juntagailu kopulatiboaren bidez elkarturiko izen sintagma singularrak (López, 1985). Hortaz, perpausa ez-gramatikala izango da *sendos*-en aurrekaria edo *sendos*-ekin konkordantzian doan izen sintagma sintaktikoki edo semantikoki singularra bada. Propietate hau beste sintagma distributibo batzuetara ere hedatzen da, hala nola, *cada uno*, *por cabeza* edo *a cual más/mejor*; besteak beste (López, 1985: 78.or.).

- (2) a. *María y Carmen vieron sendas películas.*
b. *Los profesores hablaron con sendos alumnos.*
c. *Ella les/*le dio sendos libros.*

d. **Ella conducía sendos vehículos.*

Orain arte emandako adibideetan ikus dezakegunez, *sendos* osagarri edo adjunktu posizioan aurki dezakegu, baina ezin da subjektu posizioan agertu (ez eta perpaus pasibo baten subjektu gisa ere) (López, 1985, 82.or.). Izan ere, *sendos* banatzailea plurala den sintagma batez o-komandaturik³ egon behar du zilegiztatua izateko, eta *sendos* subjektu posizioan agertzen denean hori ez da bideragarria (Bosque eta Demonte, 1999).

- (3) a. **Sendas personas han sido atropelladas por aquellos hombres.*
b. **Sendos niños vieron a sus madres.*

(2) adibideko perpausetan ikus dezakegun moduan, *sendos* determinatzaile sintagma baten edota preposizio sintagma baten barnean topa dezakegu (*sendos* libros / con *sendos* alumnos), eta beti erreferentzia egiten dion izenaren ezker aldean. Bestalde, *sendos* determinatzaile distributiboa den heinean ez du aurrekari gisa onartzen zenbatzaile zehaztugabe edo unibertsalak dituen inolako sintagmarik (Bosque eta Demonte, 1999: 1084).

- (4) a. **Algunas/pocas chicas compraron sendos libros en la librería del barrio.*
b. **Todos los niños vieron sendas películas.*
c. *Tres de tus alumnas compraron sendos libros en la librería del barrio.*

Kuantifikatzaileen posizio sintaktikoa hartzen duen arren (*tres manzanas* / *sendas manzanas*) — hau da, erreferentzia egiten dion izenaren kantitatea adierazi beharko lukeena —, *sendos*-ek ez du zehazten horren kantitatea edo zenbatekoa zein den. Izan ere, kantitatearen erreferentzia hori, bere aurrekaria den izen sintagma plural, koordinatu edo kuantifikatu batetik hartzen du (Bosque, 1992: 61.or.).

- (5) a. *Mikel, Pedro y Ane comieron tres manzanas cada uno.*
b. *Mikel, Pedro y Ane comieron sendas manzanas.*

3 O-komandoa: A-k B o-komandatzen du baldin: i) A menpe duen lehen adabegi abartuak B ere menpe badu. ii) A-k ez du B menpe, eta B-ek ere ez du A menpe.

Beste era batera esanda, (5b)-n *sendas*-ek (5a)-n *tres* zenbatzaileak hartzen duen posizio berdina hartzen du; hau da, itxuraz kuantifikatzaileari dagokiona. Baina oraintxe esan bezala, *sendas*-ek ez du zehazten erreferentzia egiten dion izen sintagmaren kantitatea zein den. Hau da, ez du zehazten *manzanas* izen sintagmaren kantitatea, *tres* zenbatzaileak, aldiz, bai. Beraz, *sendos* banakariak bere aurrekaria den izen sintagmatik hartzen du kantitatearen erreferentzia, kasu honetan subjektua den izen sintagmatik (*Mikel, Pedro y Ane*).

Bestalde, *sendos* ezin da artikulatu edo erakusle baten atzetik joan eta ez du ahalbidetzen haren ondoko izena beste edozein prozeduraz mugatzea. Ezaugarri hau, beste sintagma distributibo batzuekin ere ikus dezakegu (*por barba, al día, diario*) eta beraz, distributiboen propietate semantikotzat har daiteke (López, 1985: 81.or.).

- (6) a. **María y Carmen vinieron en esos/los sendos coches.*
b. *María y Carmen vinieron en sendos coches.*

Horrez gain, *sendos*-ek erreferentzia egiten dion izen sintagmaren esanahian interpretazio distributiboa ahalbidetzen duen beste sintagma bat perpaus berean egotea eragozten du. Hau da, ezin dira interpretazio distributiboa eskatzen duten bi izen sintagma perpaus berean agertu (López, 1985: 80.or.). Honek, Lópezek (1985) dioenez, determinatzaile honen azpikategorizazio distributiboa justifikatzen du.

- (7) **Aquellas chicas ganaron sendas medallas cada una/por cabeza.*

Halaber, ez dugu ahaztu behar *sendos*-ek generoa daukala, beraz, maskulino edo femeninoa izan daiteke jarraian duen izenaren arabera (Bosque, 1992: 61.or.).

- (8) a. *Los profesores han comprado sendos libros.*
b. *Los carpinteros arreglaron sendas ventanas.*

Behin *sendos*-ek nahitaez bete beharreko baldintza sintaktikoak aztertuta, jarraian, euskaraz banakariak ere baldintza sintaktiko berdinak betetzen dituzten ikusiko dugu.

2.2. Banakariak euskaraz: *-na* atzizki distributiboa

Gorago esan bezala, lanaren azpial honetan, euskarazko banakariak deskribatu eta zer nolako baldintza sintaktikoak bete behar dituzten aztertuko dugu. Horretarako, lehenengo euskarazko banakarien deskribapena egin dugu eta gero, aurretik aipatutako gaztelaniako *sendos* distributiboak agertzen dituen baldintzekin noraino bat datorren ikertu.

Banakariak zer diren eta euskaraz nola sortzen diren ulertzeko, garrantzitsua iruditzen zait lehendabizi zenbatzaileak zer diren gainetik azaltzea. Zubiri eta Zubirik (1995) zenbatzaileak hiru multzotan banatzen dituzte: i) zenbatzaile zehaztuak, ii) zenbatzaile zehaztugabeak eta iii) zenbatzaile orokorrak. Zenbatzaile zehaztuak *bat, bi, hiru, lau, hamar, hoge, ehun, mila* eta beste zenbaki guztiak dira, eta normalean izen sintagmen ezker aldean kokatzen dira (Euskal Gramatika. Lehen urratsak I [EGLU], 1991). Hala ere, hurrengo adibide honetan ikus daitekeenez badaude salbuespenak; izan ere, *bat* eskuineko aldean kokatzen da eta *bi* ere, noizbehinka, eskuinean aurki dezakegu.

- (9) a. *hamar* lore
- b. *mila* mezu
- c. hosto *bat*
- d. *bi* argazki / argazki *bi*

Behin zenbatzaileak zer diren eta determinatzaile sintagmaren (DetS-aren) barruan haien kokapena zein izan ohi den azalduta, banakariak zer diren eta zer nolako baldintza sintaktikoak bete behar dituzten ikertuko dugu, aurretik esan bezala gaztelaniako *sendos* banatzaileak bete behar dituen baldintzekin alderatzeko asmoarekin. Euskaraz, banakariak zenbatzaile zehaztuei *-na* atzizkia gehitzean sortzen dira (*bana, bina, hiruna, hamaseina, ehuna, mila bana...*) (Alberdi et al. 2018, 435.or.). Hona hemen adibide pare bat zenbatzaile zehaztuen eta banatzaileen arteko desberdintasunaz ohartzeko:

- (10) a. *Haurrek hamarna lore bildu dituzte.* (hamar bakoitzak)
 b. *Haurrek hamar lore bildu dituzte.* (hamar haur guztien artean)

Kokapenaren aldetik, euskaraz banakariak ere zenbatzaile zehaztuek bezala jokatzeko dute. Hau da, izen sintagmaren ezker aldean kokatzen dira, *bana* izan ezik: hau eskuineko aldean kokatu ohi baita. Hala ere, zenbatzaileen kasuan ikusi dugun bezala, *bina* banatzailea izen sintagmaren ezker aldean kokaturik aurki dezakegu, baina baita eskuineko aldean ere.

- (11) a. *hamarna* lore bildu ditugu baratzetik.
 b. hosto *bana* jaso dugu lurretik.
 c. *bina* argazki egin ditugu / argazki *bina* egin ditugu.

Alabaina, aipatu beharra dago *mila* zenbakitik gora gauzak aldatu egiten direla eta beste eredu bat jarraitzen dutela. Izan ere, *mila* eta *milioi* bezalako zenbatzaileek ez dute *-na* atzizkia onartzen eta beraz, *bana*, *bina*, *hamarna*, *ehuna*... ezarri behar zaizkio alboan (Petrirena, 2011):

- (12) a. *Mila bana pezeta ordaintzen zizkieten garai batean.* (**milana*)
 b. *Bi gizon horiek hamarna milioi irabazi dituzte loterian.* (**hamar milioina*)

Komunztadurari dagokionez, 10. adibidean ikus dezakegun bezala, osagarri posizioan *bana*-k singularreko komunztadura du eta hortik gorakoek, berriz, pluralean egin behar dute, hainbatetan bestelakorik ikusiko badugu ere (Alberdi et al. 2018, 436.or.).

Horrez gainera, aipatu beharra dago *-na* atzizkia zenbatzaile zehaztuekin erabiltzeaz gain, *zenbat* galdetzailearekin eta *hainbat* zenbatzaile zehaztuarekin ere erabil daitekeela. Gainera, banatzaileei *-ka* atzizkia erantsiz gero adberbio banatzaileak lortzeko aukera ere badago euskaraz (Zubiri eta Zubiri, 1995: 146). Adibidez:

- (13) a. *Zenbana gol sartu dituzue?*
 b. *Hainbana gol sartu ditugu.*

- c. *Irakasleak binaka jarri gaitu* ariketa egiteko.

Beraz, gaztelaniako *sendos* banakariarekin alderatuta, esan dezakegu *-na* atzizkia oso atzizki emankorra dugula euskaraz. Izan ere, *zenbat* galdetzailearekin, *hainbat* zenbatzaile zehaztuarekin eta edozein zenbatzaile zehazturekin ager daiteke eta gainera, adberbio banatzaileak sortzeko aukera ere badago.

Orain arte emandako adibideetan antzeman daitekeenez, gaztelaniazko *sendos* banakariak bezala euskaraz ere banakariak perpausean bi izen sintagma egotea eskatzen dute: banakariak modifikatuko duen izen sintagma eta aurrekari plurala (Alberdi et al. 2018, 436.or.). Hau da, gaztelerazko *sendos*-en kasuan bezala (López, 1985: 78.or.), euskarazko banatzaileen aurrekaria ere sintaktikoki eta semantikoki plurala den izen sintagma bat izan behar da edo juntagailu kopulatiboaren bidez elkaturiko izen sintagma singularrak, bestela ezin da zilegiztatua izan.

- (14) a. *(Guk) Hamarna lore bildu ditugu lorategitik.*
(* *hamarna lore bildu ditut/dut*)
- b. *Anek eta Maitek liburua bana/bedera erosi dute dendan.*
(**liburu bana/bedera jaso dut*)
- c. *Ikasleei bira/bina liburua oparitu nizkien.*
(**ikasleari bira/bina liburua oparitu nizkion*)

Aurreko adibidean, *bedera* eta *bira* formak agertzen direla ikus dezakegu; hona hemen zergatia. Lan honen bigarren atalean Iparraldeko hiztunak aztergai izango ditugunez, forma hauek agertuko zaizkigu maiz; horregatik, garrantzitsua iruditu zaigu forma hauek nondik datozen azaltzea. Ekialde osoko literatur tradizioan zenbatzaile zehaztua bokalez amaitzen denean *-na* atzizkia erabili beharrean *-ra* egiten da (Alberdi et al. 2018, 436.or.): *seira*, *zortzira*, etab. Bestalde, Ipar Euskal Herriko tradizioan *bana*-ren sinonimoa den *bedera*⁴ ere aurki dezakegu (Sareko Euskal Gramatika [SEG]).

4 “[...]pertenece fundamentalmente a las tradiciones suletina y bajo-navarra, fuera de las cuales sólo se documenta en los textos antiguos bajo la forma *bat-*. Al Sur sólo se encuentra, con un valor no atestado anteriormente, en Orixe” (Orotariko Euskal Hiztegia [OEH - euskaltzaindia.eus]).

Orain arte emandako adibideetan erakutsi dugun moduan, euskaraz ere banakariak osagarri edo adjunktu diren osagaietan aurki ditzakegu gaztelaniazko *sendos* distributiboarekin bezala. Baina gaztelaniaz ez bezala, euskaraz *-na* atzizkia subjektu posizioan ere zilegizta daiteke. Aldiz, gogoan izan gorago esan legez gaztelaniazko *sendos*-ek ezin duela subjektu posizioa hartu, ezta esaldi pasiboetan ere (Palma, 1985, 80.or.).

- (15) a. *Ane eta niri haur bana etorri zitzaigun laguntza eske.*
b. **Haur banak liburu bat erosi zuten.*
c. **Sendos niños vieron a pedirnos ayuda.*

Aurreko adibide honen (15a) perpausak, beraz, euskaraz banakariak subjektu posizioan ager daitezkeela uzten du agerian. Baina ez edozein subjektu motarekin, subjektu ergatiboekin ez, eta subjektu absolutiboen kasuan ez beti. Izan ere, hitz hurrenkerari erreparatzen badiogu (15a)-n datiboa absolutiboaren aurretik agertzen da, baina NOR-NORI perpaus guztiak ez dira berdinak. Ohiko hurrenkeran, absolutiboa datiboaren aurretik agertzen da normalean, hau da, absolutiboak o-komandatzen du datiboa, beraz ondorioztatu dezakegu absolutiboa datiboaren aurretik agertzen denean banatzaileak ez direla zilegi izango subjektu posizioan.

Bestalde, *sendos*-en kasuaren moduan, euskaraz ere banakaria agertzen den sintagma o-komandatzen duen sintagma plural bat behar dugu banakarien zilegitze baldintzak betetzeko. Baina aurreko adibide honetan ikusten dugu baldintza hori subjektu posizioan ere bete daitekeela gorago dagoen sintagma plural batek banakariaren osagaia o-komandatzen badu.

Era berean, gorago ikusi dugu itxuraz gaztelaniazko *sendos*-ek DetS-ren barruan kuantifikatzaileen posizio bera hartzen badu ere ez duela erreferentzia egiten dion izenaren kantitatea adierazten. Emandako adibideetan antzeman dezakegunez, aldiz, euskarazko banakariak ez dute berdin jokatzeko honetan. Izan ere, euskararen kasuan *-na* atzizkia zenbatzaile zehaztu bati eransten zaio eta, beraz, zenbatzaileak esaten digu banakariak erreferentzia egiten dion izenaren kantitatea zein den. Beraz, euskaraz ez diogu aurrekariari

zertan begiratu kantitatearen berri edukitzeko. Bi hizkuntzon artean dagoen ezberdintasun hau ez da, guk dakigun heinean, inoiz jaso gramatika lanetan, beraz interesgarria iruditu zaigu ezaugarri hau espresuki aipatzea.

Gaztelaniako *sendos* banatzailearekin ikusi dugun moduan (López, 1985: 81), euskaraz ere banatzaileek ez dute haien atzetik artikulatu edo erakuslerik onartzen eta ez dute ahalbidetzen ondoko izena beste edozein prozeduraz mugatzea, bestela perpausa ez-gramatikala izango da. Hau horrela, gaztelaniaz bezala (Bosque eta Demonte, 1999), esango nuke euskaraz ere banakariak funtzio distributiboa duten heinean ez dutela aurrekari gisa onartzen zenbatzaile zehaztugabe edo unibertsalik duen inolako sintagmarik (16b) adibideak erakusten duenez.

- (16) a. **Olentzerok haurrei hiruna jostailu hauek ekarri zizkien.*
b. **Haurrek hainbat liburu bana hartu zuten liburutegitik.*

Kontuan izan behar dugu askotan, banatzaileen ordean, *bakoitza* forma topatuko dugula esanahi distributiboa adierazteko (Zubiri eta Zubiri, 1995, 147.or.). Izan ere, *-na* eta *bakoitza* nolabaiteko lehia daudela esan genezake: biak banatzaileak diren heinean hainbat kasutan esanahi berdina izan dezaketelako (Petrarena, 2011, 134.or.):

- (17) a. Txapel *bana* eman zieten.
b. *Bakoitzari* txapel *bat* eman zieten.
c. Jar zaitezte errepidearen alde *banatan*.
d. Jar zaitezte *bakoitza* errepidearen alde *batean*.

Atal honekin amaitzeko, gaztelaniazko banakariaren kasuan erakutsi moduan, *sendos* distributiboa den heinean ezin da perpaus berean funtzio distributiboa duen beste forma batekin agertu. Euskaraz ere, orokorrean banakariak berdina jokatzen dute, baina Petrarenak (2011) bere lanean dioenez batzuetan ikusten dira *bakoitza* eta *-na* perpaus berean erabiltzen dituztenak (*bana har ezazue zuetako bakoitzak*). Gainera, guk ere lanaren

bigarren atalean erakutsiko ditugun datuetan horrelakoak ere ikusi ditugu: *Bakoitzak bina sagar jan zituen* (Aretxabaleta-Arrasateko J.G. hiztunaren 6. adibidea).

Laburbilduz, esan genezake orokorrean antzeko baldintzak bete behar dituztela banakariak bai euskaraz eta bai gaztelaniaz ere. Izan ere, biek behar dituzte bi izen sintagma distribuzioa egin ahal izateko, biek behar dute aurrekari plurala eta biek gaitzesten dute alboan duten izenak interpretazio distributiboa duen beste sintagma bat ere edukitzea.

Nahiz eta erkatzen ari garen gaztelerazko *sendos* banakaria eta euskal banakariak antzekotasun ugari erakusten dituzten, badaude beraien artean desberdintasun nabariak. Adibidez, *sendos*-ek ez du zehazten ondoan duen sintagmaren kantitatea, eta erreferentzia hori bere aurrekaria den izen sintagmatik hartu behar du. Euskaraz, aldiz, zenbatzaile zehaztu bat behar dute banakariak bere izaera osatzeko eta zenbatzaile hori da alboko izena kuantifikatzen duena. Bestalde, antzeman dugu euskaraz *-na* atzizkia hiztunen artean distribuzioa egiteko beti aukerarik zabalduena ez den arren gaztelaniaz baino emankorragoa dela, *sendos*-en erabilera hizkuntza-maila jakin batzuetara mugatuta dagoen bitartean (Bosque eta Demonte, 1999).

3. BANAKARIEN ERABILERA EUSKARAZ GAUR EGUN

Aurreko atalean banakariak zer nolako baldintza gramatikalak bete behar dituzten azaldu dugu, baina gauza bat da egitura existitzea eta beste bat hiztunek egitura hori erabiltzea edo egoki erabiltzea. Aurretik ikusi dugu gazteleraz *sendos* galtzen ari dela. Latinetik gaztelerara dagoen eboluzio diakronikoan zenbatzaile banakarien sistema aberatsa zuen hizkuntza batetik (latina), oso sistema sinplea duen hizkuntza batera pasatu gara (gztelera). Gaur egungo gazteleran zenbatzaile banakari bakarra dugu, *sendos*, eta bere erabilera gero eta ahulagoa da, hizkuntza erregistro kultuetara mugatuz. Hau kontuan hartuz, atal honetan euskarazko banakariak gaztelaniazkoen joera berdina hartzen ari diren ala ez aztertu nahi dugu, eta bere erabilera zenbaterainokoa den neurtu, euskarazko

banakariak geroz eta gutxiago erabiltzen badira Euskal Herrian zehar leku guztietan galeraren erritmoa antzekoa den ikertzeko. Era berean, banakariak zilegiztatuak izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituzten ere aztertuko dugu modu orokorrago batean bada ere.

Horretarako, lan honen bidez ikerketaren aldetik ekarpen txiki bat egiteko asmoz, *Norantz* proiektuak banakariei buruz eskaintzen dizkigun datuak aztertu ditugu eta horiek, Hegoaldeko hiztun jakin batzuen datuekin (Aretxabaleta eta Arrasateko hiztunak) alderatu. Horrela, Hegoaldean eta Iparraldean banakariei dagokienez joera berbera daukagun ikertuko dugu.

Datuen aldetik lagina txikia bada ere, eta alde horretatik ondorioak tentuz hartu behar badira ere, fenomenoaren joera orokorra ikusten lagungarria izan daitekeela iruditzen zaigu. Helburu honekin, hurrengo atalean lehendabizi *Norantz* proiektuaren nondik norakoak eta aztergai ditugun egiturak azalduko ditugu eta honen ondoren, datu hauetatik ondorioztatutako emaitzak aurkeztuko ditugu. Hau egin eta gero, Hegoaldeko hiztunen ezaugarri soziolinguistikoak eta hiztun eta hizkera jakin hori aukeratzeko arrazoiak azalduko ditugu eta honen ondoren, aztergai ditugun egiturak eta hauetatik ondorioztatutako emaitzak edo ondorioak laburbilduko ditugu.

3.1. Iparraldeko erabilera: *Norantz* proiektuaren emaitzen azterketa

Oraintxe esan bezala, lanaren azpiatal honetan ikerketaren aldetik ekarpen txiki bat egiteko asmoz, *Norantz* datu baseak eskaintzen dituen eta sistematikoki aztertu gabe dauden datuen lagin baten azterketa txikia egin dugu, lantzen ari garen banakariena hain zuzen. Horretarako, datuekin lanean hasi baino lehen beharrezkoa ikusten dugu *Norantz* proiektua zertan datzan laburki azaltzea.

3.1.1. *Norantz* Proiektua

Norantz proiektua, 2009-2011. urteen bitartean burutu zen CNRS-eko Baionako IKER zentroan. Honen helburua, Iparraldeko hiztunen ahozko hizkeraren lekukotasunak

datu-base batean bildu eta sailkatzea zen, garaiko hiztunek darabilten gramatikaren irudia gordetzeko. Hau da, gaur egungo hiztunek zer nolako gramatika darabilten lekukotzeko. Horrela, gaur egun edota urteak igarotzean, oinarri berdintsuak hartuz berriz ere lekukotasun berriak bildu eta datu-base honetan jasotako sail bakoitzean zer nolako aldaketak gertatu diren aztertu ahal izateko, edota egonkor iraun duten gramatika atalak zeintzuk diren antzemateko ere. Izan ere, hizkuntzaren barruko dinamikak ulertzeko ezinbestekoa da aldaketa soziolinguistikoen bilakaera kontuan hartzea (Oyharçabal, Salaberria & Epelde, 2011). Helburu honekin, soziolinguistikoki ezaugarri desberdinak dituzten hiztunak erabili ziren, hala nola, adin desberdinetakoak, bizitoki desberdinetakoak, eskolatzeko eredu desberdinetakoak, etab. Proiektu honetan jasotako datu guztiak, hiztunen profilak barne, <http://norantz.org/> webgunean daude eskuragarri interesa duen edonorentzat.

Norantz proiektua eratzeko erabilitako metodologiari dagokionez, *Norantz*-en lagina osatzeko soziolinguistikoki ezaugarri desberdinak dituzten 59 hiztun aukeratu ziren, ezaugarri bereizgarrienak kontuan izanik: adina, bizitokia, lehen hizkuntza eta eskolatzeko ereduak. Hau horrela, adinaren arabera hiru hiztun mota topa ditzakegu: 35 urte baino gutxiagoak, 40-60 urte bitartekoak eta 70 urte baino gehiago dituztenak. Eskolatzeko ereduari dagokionez, hiztunak murgiltze sisteman ibilitakoak diren ala ez nabarmentzen da. Lehen hizkuntzaren arabera, berriz, lehen hizkuntza gisa euskara, frantsesa edo biak batera izan dituzten hiztunak topatuko ditugu. Bestalde, lurraldeari edo bizitokiari dagokionez, ordea, Baiona-Angelu-Miarritze/BAM hirigunea, hiri txikiagoak eta baserrialdea multzoak izango ditugu (Oyharçabal eta beste, 2011).

Datuak aztertzerako orduan, kontuan hartu behar da hiztunen datu soziolinguistikoak ez direla uniformeak. Adibidez, hiztunen ehunekoa ez da berdina adin guztietan. Izan ere, %25,4 dira 70 urtetik goragoak, %20,3 40-60 urte bitartekoak eta %54,2 30 urtetik beherakoak. Ikus daitekeenez, azken hauek hiztun guztien erdia dira gutxi gorabehera. Oyharçabal eta beste (2011) diotenez, aipagarria da ez dagoela murgiltze

sistemako eskoletan ibili den 40 urtetik gorako hiztunik. Bestalde, 70 urtetik gorako guztiek daukate euskara lehen hizkuntzatzat.

Kontuan hartzekoa da, beraz, hiztunen erdia baino gehiago, %64,4, hain zuzen, frantsesez eskolaratua dela, %28,8 murgiltze sisteman eta %6,7 euskaraz eta frantsesez. Hiztun gehienak frantsesez eskolatuak badira ere, jasotako lehen hizkuntzari dagokionez gehiengoak (%71,2) euskara du lehen hizkuntza gisa, %20,3k frantsesa eta %8,4k euskara eta frantsesa, biak batera. Hiztunen ezaugarriekin amaitzeko, esan beharra dago bizilekuari dagozkion datuak direla parekatuen daudenak, izan ere, hiztunen %33,9a hirian bizi da, %25,4a hirixkan eta baserrian %40,6a.

Sexuari dagokionez sailkapen irizpide nagusitzat hartu ez bada ere kontuan izan dute eta gutxi gorabehera hiztunen erdia emakumezkoak dira eta gizonezkoak beste erdia. Euskalkiak, ordea, ez dituzte sailkapen irizpidetzat hartu hiztun guztiek ez baitzuten euskalkirik. Hala ere, euskalkia zutenen kasuan hiztunen datuen zerrendan espresuki adierazten da. Sailkapenetan euskalkia aipatzen da eta Iparraldeko euskalki nagusi guztietako (zuberera, behe-nafarrera, lapurtera) hiztunak kontuan hartu dira (Oyharçabal eta beste. 2011: 6).

Oyharçabal eta bestek (2011) diotenez, proiektu honetan ez dira bereziki hiztun “idealak” bilatu, hiztun arruntak baizik. Izan ere, profil soziolinguistiko desberdinetako hiztunekin lan egitea zuten helburu. Hiztun horien gramatika moldeak ezagutzeko eta biltzeko, frantsesezko hainbat galdera mota desberdin banan-banan ahoz euskaraz erantzuteko eskatu zitzaizen 59 hiztunei, erantzun edo emaitzak grabagailuaz grabatu zirelarik. Emaitzak lortzeko, gehienbat itzulpena erabili da, hiztunei frantsesezko ereduak aurkeztu eta euskara zitzaten eskatuz. Hala ere, ikerlari hauek zehazki aitortu zuten, teknika honek baditu bere zailtasunak. Izan ere, batzuetan hiztunak eskaintako itzulpena desegokia edo ez-gramatikala izan daiteke; edo, gerta liteke, hiztunak semantikaren arlotik antzekoak diren emaitza edo itzulpenak ematea, baina bilatzen ari ziren egituraren ezaugarriaren arrastorik ez eskaintzea. Bestalde, kontua izan behar da kasu honetan

Iparraldeko hiztunak direnez alboan daukaten frantsesaren eraginak ere baldintzatu ditzakeela emaitzak.

Proiektu honetan bildutako ezaugarri gramatikal ugarien artean, *C. Joskera* ataleko C.5. azpiatalean *banaketariak* ditugu, fenomeno hau aztertzeke lau perpaus ezberdin eskaintzen direlarik (C99-C102 perpausak). Ez dugu ahaztu behar lagin honek Iparraldeko egoeraren nahiko erretratu zehatza ematen badigu ere, eskaintzen digun lagina mugatua dela; izan ere, 59 hiztunek itzulitako 4 perpaus mota ezberdin ditugu soilik guk ikustatu nahi ditugun banakarien erabilpena aztertzeke, adibidez.

3.1.2. Aztergai ditugun egiturak

Oraitxe aipatu bezala, *Norantz*-ek eskainitako zerrendako adibideetan lau perpaus mota (C99-C102) ageri dira Iparraldeko 59 hiztunek banakariak nola erabiltzen dituzten ikertzeke. Aitortu beharra dago, esaldi hauek espresuki prestatuak izan zirela banakarien erabilera ziurtatzeko (Oyharçabal eta beste, 2011). Jarraian, banan banan deskribatu ditugu lau perpaus hauek fenomenoan eragina izan ditzaketen ezaugarri gramatikalak kontuan hartuz.

i) C99 — Lehenengo perpaus honek egitura iragankorra du (*nor-nori-nork* erakoa) eta frantsesetik itzultzekeo hiztunei eman zaien adibidea hau dugu: “(*Peio et Maddi sont content.*) *Je leur ai donné chacun un livre*”. Beraz, kasu honetan aurrekari plurala zehar objektu funtzioa duen 3. pertsona pluraleko izenordaina da (*leur* ‘haiei’), eta banakaria modifikatzen duen Izen Sintagma osagarri zuzena, *un livre*. Helburu dugun euskarazko egituran, hiztunak osagarri zuzenean banakaria ekoizten duen aztertzea da nahi duguna (*liburu bana*).

ii) C100 — Bigarren esaldi honetan ere egitura iragankorra dugu (*nor-nork* erakoa): “(*Peio et Maddi sont content.*) *Ils ont mangé chacun deux pommes*”. Perpaus honetako subjektua plurala den aurrekaria dugu (*ils* ‘haiek’). Osagarri zuzenari dagokionez (*chacun deux pommes*), C99 perpaus legez hiztunek osagarri zuzenean banakaria ekoizten duten

aztertzea da gure helburua. Horrez gain, aurreko perpausean ez bezala, osagarrian aurkitzen dugun banakaria *bi* zenbatzailearekin sortutakoa da (hau da, *bina*, eta ez *bana*).

iii) C101 — Hirugarren perpausaren egitura C100eko egitura berbera dugu: *normork* egiturako perpausa da, aitzindari plurala subjektu posizioan dago (*Chacun des deux*) eta banakariak osagarri zuzena modifikatzen du; “(*Peio et Maddi sont content.*) *Chacun des deux a vu trois films*”. Aurreko perpausarekin erkatzen badugu perpaus honek duen desberdintasuna erabilitako banakaria da: kasu honetan *hiru* zenbatzailearekin sortua da. Beraz, *hiruna* litzateke helburu dugun egiturak duen banatzailea.

iv) C102 — Azken esaldi honetan, aurrekoetan ez bezala, egitura iragangaitza dugu. Plurala den aurrekaria subjektu absolutiboa litzateke, baina banakariak kasu honetan adjektu bat modifikatzen du: “(*Peio et Maddi sont content.*) *Ils sont partis chacun dans une voiture.*”. C99 esaldiaren moduan, hemen erabili den banakaria *bat* zenbatzailearekin osatutakoa dugu, *bana*.

Aipatzekoa da, aurreko lau perpaus hauetan banakaria DetS plural batez o-komandaturik dagoela, beraz lau egitura hauek banakariak bete behar duten baldintza hau betetzen.

Lau egitura hauek, aukera ematen digute zenbatzaile desberdinekin eta perpaus egitura mota desberdinetan *-na* atzizkiaren erabilera berdina ote den eta zenbatzaileen arabera joera aldatzen ote den aztertzeko. Hala ere, adibide mugatuak dauzkagu eta hiztun eta zenbatzaile infinituak, beraz, ez dugu ahaztu behar dauzkagun datuen gainean gabiltzala lanean eta ezin dugula ateratako emaitzekin gehiegi orokortu.

3.1.3. Emaitza orokorrak


- **C99 perpausa**

Lehenengo perpausean (C99) dagokionez, 59 hiztunen ekoizpenetan oinarrituz hiru multzo egin ditugu: 1) *bana* edo *bedera* forma erabiltzen duten hiztunak, 2) *bakoitzari* edo

bakarrari bat forma erabiltzen dutenak eta 3) itzulpena egiterakoan *bana* eta *bakoitza* distributiboak aldi berean erabili dituztenak. Lan honen 2.2 atalean azaldu dugunez, *bana*-k distributibo funtzioa betetzen duen heinean ez du onartzen perpaus berdinean beste distributiborik. Hala ere, Petrirenak (2011) bere lanean aipatu bezala, nahiko ohikoa omen da horrelako egiturak topatzea eta bistan denez guk ere horrelakoak topatu ditugu.

Emaitzekin hasi baino lehen, aipatu beharra dago 59 hiztun hauen artean batek (*NAZI bat bakoitzari* forma eta *bana* forma biak erabili dituela, beraz, ehunekoak ditugun 59 perpausen gainean eraiki beharrean 60 perpausen gainean eraiki behar izan ditugu. C99 perpausaren kasuan, %15ek bakarrik itzuli du esaldia *bana* edo *bedera* forma erabiliz, gehienek (%81,67) *bat bakoitzari* edo *bakarrari* erabili duten bitartean. *Bana* forma erabili dutenen artean hiru hiztunek *bana*-ren sinonimoa den eta Ipar Euskal Herrian tradizioan erabili izan den *bedera* forma erabili dutela (Sareko Euskal Gramatika [SEG]) konturatu gara. *Bat bakoitzari* erabili dutenen artean, aldiz, badago hiztun bat (*LOUSEN*) Goi Nafarrerako *bakarra* aldaera erabili duena.

(1) 1. grafikoa



Bana eta *bedera* erabili duten hiztunen %15 horretara bueltatuz, ikusi dugu hiztun horien %77,7ak, hau da, hiztun gehienek, euskara dutela lehen hizkuntzatzat. Gainerakoek, berriz, frantsesa edo euskara eta frantsesa, biak dituzte ama hizkuntzatzat. Eskola ereduari dagokionez, gehienak ere (%77,7a) frantsesez eskolaratuak dira eta gainontzekoak, (%22,3) murgiltze sisteman eskolaratutakoak. Hau, hiztunen adinarengatik izan daiteke. Izan ere, 40 urtetik gorako hiztun guztiak frantsesez eskolaratuak dira. Bizilekua, ordea, %55,5k baserrian dute, %33,3k hirixkan eta %11,1ek bakarrik, hirian.

Egia esan, onartu beharra dago *bana* erabili duten hiztunen ezaugarriak honaino nahiko uniformeak izan direla; hala ere, hiztunen adinean ikusten da aldaketa gehien. Hain zuzen ere, %33,3a dira 70 urtetik gorakoak, beste %44,4a 30 urtetik beherakoak eta %22,2a bakarrik 40-60 urte bitartekoak. Honen arabera, ematen du banakarien erabilera gazteen artean berreskuratuz doala. Izan ere, *bana* erabili duten hiztunen artean ugari dira 30 urtetik beherakoak (%44,4).

Beraz, lehenengo grafikoak erakusten duen moduan, Iparraldeko hiztun hauen artean *bat bakoitzari* da forma ugariena mota honetako perpausak itzultzerakoan. Hala ere, hiztun hauek *bana* forma ez erabiltzeak ez du esan nahi nahitaez ezagutzen ez dutenik, noski.

Bestalde, adibide honen (C99) emaitzekin amaitzeko, orokorrean Iparraldeko hiztunek banakariak orokorrean beharrezkoak dituzten baldintzak betez erabiltzen badituzte ere, aurretik esan bezala pare bat hiztunek (*MADON*, *YOSAN*) beste distributibo batekin erabili dute banakaria. Aditzaren komuntadurari dagokionez, lanaren lehenengo atalean ikusi dugunez, distributiboa *bat* zenbatzailearekin doanean singularrean jokatu beharko litzateke; baina hala ere, 31. hiztunak (*XABAI*) pluralean jokatu du. Edozein modutan ere, espero bezala *bana* erabili duten hiztun guztiek singularrean erabili dute aditza.


- **C100 perpausa**

Aztergai dugun bigarren perpausan (C100) ere, hiztun batzuen ekoizpenak, 7 adibide⁵ zehazki, alde batera utzi behar izan ditugu: ez-gramatikaltasunagatik, esaldia *bi* zenbatzailearen ordez *bat*-ekin itzuli dutelako, edota banatzaileak agertzen ez zituen esaldia zelako. Beraz, ateratako ehunekoak gainerako 52 hiztunen adibideen gainean eraikitakoak dira.

5 *XALEZ*, *JEDON*, *GRAAR*, *MAAL*, *AKAN*, *ABE*, *XILA* eta *MAILA* hiztunen adibideak (Ikus. adibideak lanaren amaierako *II.Eranskina* atalean).

Honela, bigarren grafiko honetan ikus dezakegunez, *-na*-ren erabilera aurreko perpausarekin alderatuz erdia baino gehiago murriztu egin da. Izan ere, 52 hiztun horien gehiengoak (%92,32) *bakoitzak bi* erabiltzen du (gogoratu, multzo honen barruan daukagula *bakarra* aldaera Goi Nafarra erabiltzen duen hiztuna) eta %5,76k bakarrik *bina*. Bestalde, ehuneko honen barruan hiztun batek lanaren lehenengo atalean aipatutako Iparraldeko forma darabil: *bira*.

(2) 2. grafikoa




Bina erabiltzen duten hiztunen artean aipatzekoa da hiztun guztiek batek izan ezik ezaugarri guztiak partekatzen dituztela: izan ere, euskara dute lehen hizkuntzatzat, baserria dute bizileku eta frantsesez eskolaratuak dira. Adinari dagokionez, hiru hiztun horietako bi 70 urtetik gorakoak dira, baina besteak 30 urtetik behera ditu. Beraz, hipotesia baino ez bada ere, datu hauei begiratu gero pentsa genezake ezaugarri hauek betetzen dituzten hiztunek joera handiagoa daukatela *bina* erabiltzeko.

Bigarren adibide honen (C100) emaitzekin amaitzeko, gainetik bada ere aditz komunztadurari begiratu diogu. Adibide honetan, banakaria *bi* zenbatzaileaz sortua denez espero genuena aditza pluralean egotea zen, baina ikusi dugu *bakoitzak bi* erabilitako hiztun ugarik singularrean jarri dutela. Hau posiblea da, izan ere, Iparraldeko leku batzuetan (Zuberoan) zenbatzaile lausok ez dute nahitaez komunztadura singularra eskatzen (Franco, 2019: 18; Etxeberria & Etxepare, 2009). Hala ere, *bina* forma erabili duten hiztun guztiek pluralean jarri dute aditza *bira* forma erabili duen hiztunak (*ANIZ*) izan ezik.

- **C101 perpausa**

Hirugarren perpausa (C101) aurrekoaren oso antzekoa dugu. Kasu honetan ere, adibide batzuk⁶ (7 perpaus) baztertu egin behar izan ditugu itzulpena *bi* zenbatzaileaz egin dutelako edo ez-gramatikaltasunagatik (**hiru filmana*). Gainera, ematen du hiztun hauetako batzuk eskaintako ereduaren interpretazio askea egin dutela. Beraz, adibide horiek ere albo batera utzi behar izan ditugu ez baitziguten intereseko daturik eskaintzen (hau da, banakariei buruzkoak). Bestalde, C99 perpausaren kasuan bezala, badago hiztun bat (*JOAINH*) bi formak erabili dituen, hau da, *bakoitzak hiru* eta *hiruna*, beraz, ehunekoak ditugun 53 perpausen gainean eraiki ditugu.

(3) 3. grafikoa.



Kasu honetan, aurreko perpausaren emaitzekin alderatuz *bakoitzak hiru* eta *hiruna* formak erabiltzen dituzten hiztunen kopurua apurtxo bat jaitsi bada ere, aurreko perpausaren *bakoitzak bi* eta *bina* erabiltzen zituztenen oso antzekoa dela antzeman dezakegu. Beraz, *Norantz* proiektuan eskaintzen dizkiguten adibideen arabera, esan dezakegu ez dagoela desberdintasun nabarmenik *bina* eta *hiruna* zenbatzaileen arteko erabileran. Hala ere, aurreko datu hauei erreparatuta, ziurtasun osoz ez bada ere suposatuz dezakegu banakariak gero eta gutxiago erabiltzen direla zenbatzailearen kopuruak gora egiten duen heinean.

Hiruna erabiltzen duten hiztunen (%5,66) ezaugarri soziolinguistikoei dagokienez, esan beharra dago aurreko perpausaren *bina* erabili duten hiztunen kasuan bezala

6 *MADON, XALEZ, BELU, GRAAR, XAAN, ABE* eta *MAILA* hiztunen adibideak (Ikus adibideak lanaren amaierako *II.Eranskina* atalean).

berdintsuak direla. Gainera, hauen %66,6k euskara dute ama hizkuntzatzat eta geratzen den %33,3 horrek, euskara eta frantsesa, biak. Adinari dagokionez, berriz, hiztun bakarra (*XALAI*, 40-60) izan ezik 30 urtetik beherakoak dira denak. Gainera esanguratsua da hiztun hauek ez direla eskola murgiltze sisteman eskolaratutakoak. Honek, aurretik proposatutako hipotesiari indarra ematen dio, izan ere aurreko perpausean ere *bina* edo *bira* erabili duten hiztunek ezaugarri soziolinguistiko berdintsuak erakusten dituzte. Beraz, aurretik esan bezalaxe datu hauei begiraturaz pentsa genezake ezaugarri soziolinguistiko hauek dituzten hiztunek joera handiagoa daukatela *-na* atzizkia erabiltzeko.

Hirugarren adibide honetan, aditz komunztadurari dagokionez, aurrekoan bezala *bakoitzak hiru* ereduak erabili duten hiztun ugarik singularrean jarri dute aditza. Baina kasu honetan, *hiruna* forma erabili dutenen artean ere hirutik bik (*XALAI* eta *JOAINH*) singularrean jarri dute aditza. Beraz, aurreko adibideetan ere ikusi dugunez, Alberdi eta bestek (2018) aipatu bezala nahiko ohikoa da (tradizioan) horrelakoak topatzea.

- **C102 perpausa**


Iparraldeko hiztunen datuen emaitzekin amaitzeko, aztergai dugun azken perpausari (C102) erreparatuko diogu. Perpaus honetan, aurrekoetan ez bezala banakaria adjunktuan topatuko dugu. Adibide honetan ikusi dugu jaitsi dela gehien banakarien erabilera eta *bakoitza*-ren alde jotzen dutela. Ez dugu ahaztu behar, kasu honetan ere aurrekoetan bezalaxe badagoela hiztun bat (*KOBA*) *bakarra* forma erabili duena.

Adibide honetan ere albo batera utzi behar izan ditugu hiztun hauek eskainitako hainbat adibide⁷ (9 adibide). Kasu honetan ez-gramatikaltasunagatik (**bana ototan*, *XALAI*), ez zigutelako banakarien intereseko daturik eskaintzen edota *bere* erakuslea erabili dutelako itzulpena egiterako orduan. Aipatzekoa da, aurrekoekin alderatuta, C102 adibide honetan baztertu behar izan ditugula perpaus gehien. Bestalde, perpaus honen adibideen kasuan kontua hartzekoa da pare bat hiztunek eskaini zaien frantsesezko ereduko

7 *MADON, LOUSEN, XALEZ, ANIZ, BELU, PIEGE, JEDON, XALAI* eta *MAILA* hiztunek eskainitako perpausak (ikus. adibideak lanaren amaierako *II.Eranskina* atalean).

deklinabide desberdina erabili dutela, hau da, *kotxe banatan* edo *bakoitza kotxe batean* dira espero ditugun itzulpenak, baina, *bakoitza kotxe batekin* edo *bakoitza kotxe batera* bezalakoak ere topatuko ditugu. Hauek kontuan hartzea erabaki dugu, deklinabide modu horiek ez duelako baldintzatzen banakaria agertzea (*kotxe banarekin/banatarra*). Beraz, 59 hiztunen adibideetatik 50 hartu ditugu kontuan emaitzok ateratzeko.

Hau horrela, ikus dezagun Iparraldeko hiztunek azken adibidea itzultzerakoan eskaintzen dizkiguten datuak:



Hirugarren grafiko honetan ikus daitekeenez, ia hiztun guztiek (%98) erabili dute *bakoitza*, *bana* erabili beharrean. Zehazki, hiztun bakar batek erabili du *bana* egitura honetan. Gainera, aurretik emandako hipotesiaren kontra, esan beharra dago hiztun honek ez duela aurreko egituretan *bana*, *bina* edo *hiruna* erabili dituzten hiztunen ezaugarriekin bat egiten. Izan ere, hiztun honek 30 urtetik behera ditu, hirixkan du bizilekua, lehen hizkuntzatza euskara eta eskola murgiltze sisteman eskolaratutakoa da. Hala ere, esan bezala hemen ere banakaria erabiltzen duen hiztuna 30 urtetik beherakoa da eta eskola murgiltze sisteman ikasitakoa, beraz, pentsa genezake gazteen artean apurtxo bat berreskuratzen ari dela banakarien erabilera. Hala ere, kasualitatea izatea izan daiteke.

Bestalde, perpaus hauen konparaketatik atera dezakegun daturik nabarmenena honako hau da: banakarien erabileran alde nabaria dago banakaria osagarri posizioan agertzen denean edo adjunktu posizioan. Izan ere, banakarien erabilera handiagoa da banakaria osagarri posizioan dagoenean.

3.2. Hego Euskal Herriko banakariaren erabilera: Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera darabilten hiztunen laginaren azterketa

Gorago aipatu bezala, lanaren atal honetan banakariari buruzko datu gehiago bildu nahi izan ditugu Iparraldeko laginarekin erabilera aldetik konparaketa txiki bat burutzeko. Horretarako, Aretxabaleta-Arrasate (Aretxabaleta eta Arrasate Gipuzkoako hegomendebaldean kokatzen dira, Debagoiena eskualdean) inguruko hizkera darabilten hiztunak aukeratu ditugu. Alde batetik, lan gehiegi zelako Hegoalde osoko datuak bildu eta aztertzea eta bestetik, hiztun euskaldun kopuru handia topa ditzakegun lekuak direlako eta Euskal Herriko erdialdeko euskararen lekuko zuzenak direlako. Horregatik, hiztun talde murriztagoa aukeratzea erabaki genuen. Gainera, egin nahi genuen konparaketa Iparraldeko hiztunekin izanik, Iparraldeko euskaratik dezente urruntzen zen hizkera batekin egitea interesgarria zen.

Jarraian, Iparraldeko hiztunen kasuan egin dugun bezala, aukeratutako hiztunen profil linguistikoak azalduko ditugu lehendabizi, ondoren, datuak nola lortu ditugun eta aztergai ditugun egiturak zeintzuk diren eta amaieran, datuetatik ateratako emaitza orokorrak aipatuko ditugu.

3.2.1. Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera eta profil linguistikoak

Hiztunen profilei dagokienez, guk ere, *Norantz* proiektuan bezala, hiztun arruntak bilatu nahi izan ditugu eta soziolinguistikoki ezaugarri ezberdinak dituztenak. Hau horrela, Aretxabaletako hizkera darabilten 20 hiztunen lekukotasunak jaso ditugu. Kontuan hartu beharra dago, azken finean, lagin txiki baten gainean gabiltzala lanean eta beraz, ezin dugula errealitatearen %100-eko islatzat hartu inondik inora ere. Aipatu bezala, soziolinguistikoki ezaugarri desberdinak dituzten hiztunak bilatu nahi izan ditugu. Hauen adinari dagokionez, bi multzotan antolatu ditugu, erdia 35 urtetik beherakoak (10 hiztun) eta beste erdia 40-70 urte bitartekoak (10 hiztun). Bizilekuari dagokionez ere beste bi multzotan banatu ditugu: momentuan Aretxabaletan edo Arrasaten bizi direnak eta hortik

kanpo bizi direnak⁸. Eskolatzeko ereduari dagokionean, berriz, hiru multzo ditugu: gaztelaniaz eskolaratuak, D eremuan eskolaratuak eta kopuru askoz murriztazagoko batean bada ere, gaztelaniaz eta euskaraz eskolaratuak. Bestalde, ama hizkuntzari dagokionez, esanguratsua da lau hiztunek izan ezik beste guztiek euskara izan dutela ama hizkuntzatzat.

Multzo bakoitzeko hiztun kopuruari begiratzen badiogu, aipagarria da hiztun kopurua oso parekatua dela tarte bakoitzean. Oraintxe ikusi dugu, adibidez, adinaren arabera hiztun kopurua parekatua dela. Aipagarria da 35 urtetik beherako hiztunen artean A eremuan eskolaratua izandako hiztun bat izan ezik, D eremuan eskolaratuak izan direla denak. 40-60 urtekoak, berriz, euskara eta gaztelaniaz eskolaratuak izan diren bi izan ezik, beste guztiak gaztelaniaz eskolaratuak izan dira. Bizilekuaren ikuspuntutik, nahiko parekatuak daude bi multzoak. Izan ere, baditugu 9 hiztun momentuan Aretxabaletan edo Arrasaten bizi direnak eta beste hamaika, Debagoiena ingurutik nahiko urrun bizi direnak.

Kasu honetan, lekukotasunak ez ditugu ahozko grabazioen bidez lortu, idatziz baizik. Izan ere, COVID-19-ak eragindako egoerarekin besteak beste, errazagoa zen hiztun kopuru gehiago eta egoera soziolinguistikoko ezberdinetakoak topatzea modu honetan. Beraz, *IV.Eranskina* atalean topatuko duzuen inkesta bat sortu genuen eta *WhatsApp* aplikazioaren bidez zabaldu. Bertan, ikerketa honen helburuak zeintzuk ziren eta parte hartzearekin ados zeuden galdetu zitzairen. Horrekin batera, hiztunei⁹ baimena eskatu zitzairen eskaintako datuekin lan egiteko, betiere haien anonimotasuna bermatuz.

3.2.2. Aztergai ditugun egiturak

Norantz proiektuan bezala, hiztun hauei lau perpaus desberdin euskaratzeko eskatu genien behar genituen datuak lortzeko. Erabilitako metodologiari buruz ohar garrantzitsu

-
- 8 Aretxabaleta edo Arrasatetik kanpo bizi diren hiztunak direla esaten dugunean, hizkera hori egunerokotasunean darabilten hiztunak direla, baina momentuan herri horietatik dezente urrun bizi direla da esan nahi duguna.
- 9 Eskerrak eman nahi nizkioke esperimentu honetan parte hartu duen hiztun bakoitzari izandako prestutasun eta konfiantzagatik. Izan ere, ezingo genuke lan hau aurrera eraman haiek eskaintako daturik gabe.

bat egin nahi dugu aztergai ditugun egituren deskribapenarekin hasi baino lehen. Esan bezala, idatziz eskainitako gaztelaniazko esaldi batzuk ahoz esango lituzketen moduan euskaratzea eskatu diegu, baina hasieratik konturatu ginen gaztelaniaz ematen zitzaien formaren arabera hitzez hitz itzultzeko arriskua zegoela (*uno cada uno = bakoitzak bat*) eta horrela, ezingo genituela lortu haiek darabilten banakarien forma naturalak edo baldintzatu gabeak. Hori ekiditeko, euskaraz hitzez hitzeko itzulpena duen baina hain komuna ez den eredu ematen saiatu gara (*por cabeza = buruko*). Hau horrela, hiztunei eskainitako fitxan lehendabizi euskaraz hain komunak ez diren esaldien itzulpenak egitea eskatu zaie (*por cabeza*) eta gero, baita ere (*uno*) *cada uno* agertzen dutenena. Horrela, benetan egiaztatu ahal izan dugu bigarren perpaus eredu hauek itzultzerakoan *bakoitzak bat, bi..* gehiago erabili dutela *bana* edo *bina* baino. Horregatik, datu ahalik eta natural eta errealekin lan egiteko, eskaini dizkiegun bi perpaus mota hauetatik lortutako datuak bildu ditugu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar bildutako datuen lagina txikia dela eta ez duela inondik inora errealitatea ehuneko ehunera adierazten.

Bestalde, fitxaren amaieran *-na* atzizki distributiboa darabilten bi esaldi desberdinen adibideak eskaini zaizkie, *-na* atzizkia itzulpenetan erabili ez duten hiztunek itzulpen hauetan erabili ez duten arren, forma hau ezagutzen edota batzuetan erabiltzen duten galdetuz. Izan ere, ezin dugu ziurtatu itzulpenetan *-na* forma distributiboa ez erabiltzeagatik hiztun horrek ez duenik inoiz erabiltzen edota ezagutzen ez duenik. Zati honek, emaitza nahiko esanguratsuak eskaini dizkigula aurreratu nahiko nuke; aurrerago ikusiko dugu zergatik.

Norantz proiektuak eskainitako adibideei jarraikiz sortu ditugu gaztelaniazko perpausok, horrela konparaketa errazteko. Besterik gabe, hona hemen hiztunei eskainitako egituren deskribapena:

Itzultzeko eskaini zaien lehenengo perpausaren egitura iragankorra da (*nor-nori-nork* erakoa) eta gaztelaniatik itzultzeko hiztunei eman diegun adibidea hau dugu:

(18) 1. “(*Peio y Maddi están felices.*) *Les di un libro por cabeza*”.

Beraz, kasu honetan frantseseko C99 esaldian bezala, subjektua lehenengo pertsona singularra den izenordaina dugu (*yo/nik*), aurrekari plurala, hau da, zehar objektu funtzioa duen 3. pertsona pluraleko izenordaina (*a ellos/haiei*) eta osagarri zuzena (*un libro*), banakariak modifikatuko duena.

Itzultzeko eskaini zaien gaztelaniazko bigarren perpausaren egitura ere iragankorra dugu (*nor-nork* erakoa):

(19) 2. “*(Peio y Maddi están felices). Se comieron dos manzanas por cabeza*”.

Perpaus honetan ere, *Norantz*-eko C100 adibidean bezala, subjektua plurala den aurrekaria dugu (*ellos/haiek*) eta osagarri zuzena (*dos manzanas*) *por cabeza* distributiboarekin, baina honetan osagarrian aurkitzen dugun banakaria *bi* zenbatzailearekin sortutakoa da.

Hirugarren perpausak ere, C101ean frantsesez topatzen dugunaren egitura berbera du: *nor-nork* egiturako perpausa, aitzindari plurala subjektu posizioan eta banakaria osagarri zuzena modifikatzen. Baina perpaus honetan, banakaria *hiru* zenbatzailearekin sortua da.

(20) 3. “*(Peio y Maddi están felices.). Han visto tres películas por cabeza*”.

Itzultzeko eskaini zaien gaztelaniazko azken perpausaren egitura ere, *Norantz* proiektuaren zerrendako C102 adibidearekin bat dator. Aurrekoetan ez bezala, egitura iragangaitza dugu: subjektu absolutiboa aurrekari plural gisa eta banakaria (*bat* zenbatzailearekin osatua) adjunktu bat eraldatzen.

(21) 4. “*(Peio y Maddi están felices.). Se fueron en un coche por cabeza*”.

Ustez, gaztelaniatik itzultzeko eskaini dizkiegun lehenengo lau adibide hauek euskarazko hitzez hitzeko itzulpena gehien saihestuko dutenak dira, baina esan bezala hitzez hitzeko itzulpena ematera bideratuko dituzten perpausak ere itzultzeko eskatu genien

benetan itzulpena baldintzatzen zuten ikusteko. Beraz, esaldi hauek, egitura eta esanahi aldetik aurretik eskainitakoekin berdina dira:

- (22) 5. “*(Peio y Maddi están felices.) Les di un libro a cada uno*”.
- (23) 6. “*(Peio y Maddi están felices.) Se comieron dos manzanas cada uno*”.
- (24) 7. “*(Peio y Maddi están felices.) Han visto tres películas cada uno*”.
- (25) 8. “*(Peio y Maddi están felices.) Se fueron cada uno en un coche*”.

Oraintxe esan bezala, itzulpenak egin eta gero fitxaren amaieran *-na* atzizki distributiboa darabilten bi esaldi desberdinen adibideak eskaini zitzaizkien (batean banakaria osagarri gisa eta bestean adjunktua gisa¹⁰), nahiz eta adibideetan ez erabili, benetan ezagutu eta erabiltzen ote dituzten zehazteko.

3.2.3. Emaitza orokorrak

Emaitzak ikusteko, aurreko atalean erakutsitako adibideen emaitzak binaka konparatu ditugu; izan ere, sinonimoak diren perpausak ditugu. Beraz, horrela egin dugu erkaketa: euskaraz hitzez hitzeko itzulpena bideratzen duten perpausetatik ateratako emaitzak vs. euskaraz hitzez hitzeko itzulpen hain komuna ez dauzkatenetatik ateratakoak.


- **1) eta 5) perpausak**

Egia esan, lehenengo perpaus motaren gaztelaniazko itzulpenetan espero ez genituen emaitzak jaso ditugu. Izan ere, Iparraldeko emaitzak ikusita ez genuen uste Aretxabaleta-Arrasate inguruko hiztunek *bana* forma hainbeste erabiliko zutenik *bat bakoitzari* formaren gainetik. Bestalde, 1) perpausaren hiztun batek bi formak eskaintzen dizkigu, beraz, perpaus honetan ehunekoak ateratzerako orduan 21 adibideren gainean egin dugu. Horretaz gain, banakaria beste distributibo batekin erabili duten hiztunak ditugu.

-1. perpausaren (“*(Peio y Maddi están felices.) Les di un libro por cabeza*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:


10 Ikus. *IV.Eranskina* atalean.

(5) 5. grafikoa



-5. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices.*) *Les di un libro a cada uno*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(6) 6. grafikoa



Grafiko hauek erakusten digutenez, emaitza oso desberdinak ditugu hitzez hitzeko itzulpena bideratzen duen perpausa eskainiz gero edo *por cabeza* perpaus eredu eskaintzen badiegu. Kasu honetan, gure aurreikuspenak bete direla ikus dezakegu, izan ere, 1) perpausan askoz hitzun gehiagok erabili dute *bana*. Beraz, aurreikusi bezala, esan genezake gaztelaniaz emandako 5) perpausak hitzun ugari *bat bakoitzari* erabiltzera eramán dituela.

Esan bezala, datu hauek Iparraldeko emaitzekin alderatuz alde nabaria dago. Izan ere, 5. perpausetik ateratako datuak C99 perpausarekin alderatuz, ikus dezakegu bikoiztu egiten dela *bana*-ren erabilera eta 1. perpausarekin alderatuz gutxi gorabehera hirukoiztu.

1. eta 5. perpausen adibideekin amaitzeko, esan beharra dago aditzaren komuntadurari begira datu esanguratsuak ikusi ditugula. Izan ere, adibideren batean *bana* erabili duten hitzun guztien artean (20) 13k aditza pluralean erabili dute (*Liburu bana emun nutzien*) eta *bat bakoitzari* erabili dutenen artean, berriz, 5 hitzunek (*bakoitzai liburu bat emun notzien*). Kasu honetan, Iparraldeko hitzunek eskainitako adibideekin alderatuz


kontrako joera ikus daiteke, hau da, Iparraldeko hiztunek joera handiagoa daukate aditza pluralean ipintzeko *bat bakoitzari (bakotxari liburu bat eman dizkiet)* erabiltzen dutenean eta Aretxabaleta-Arrasateko hiztunek, berriz, *bana* erabiltzean (*Liburu bana emun nutzien*).

- **2. eta 6. perpausak**

Bigarren multzoa, hau da, 2. eta 6. perpausen itzulpenetatik eskuratutako datuak, 1. eta 5. perpausen itzulpenekin alderatuta *bina* formaren ehunekoak apurtxo bat behera egiten badu ere, oraindik hiztun kopuru handiak erabili duela ikus dezakegu. Kontuan hartu behar dugu, aurreko 1. perpausaren bezala, hiztun batek bi formak erabiltzen dituela *bina* eta *bakoitzak bi*, beraz, 2. perpausaren 20 adibide izan beharrean 21 izango ditugu. Bestalde, kasu honetan ere banakaria beste distributibo batekin erabili duten hiztunak ditugu.


-2. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices. Se comieron dos manzanas por cabeza*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(7) 7. grafikoa.



-6. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices. Se comieron dos manzanas cada uno*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(8) 8. grafikoa.



Datu hauen arabera, esan genezake *-na* atzizkiaren erabilera *bat* edo *bi* zenbatzailearekin erkatuz gero oso antzekoa dela. Izan ere, aurreko adibideekin alderatuta beherakada ikusten bada ere, oraindik hiztun kopuru ugari erabili du *bina*. Gainera, grafiko hauei begiratzen badiegu, aurreko adibideetan bezala 6. perpaus motak hiztun ugari *bat bakoitzari* erabiltzera eraman dituela ikus dezakegu.

Emaitza hauek Iparraldeko datuekin alderatuta, ikus dezakegu bietan *bina*-ren erabilera beherakada dagoela *bana*-rekin konparatuz. Hala ere, aurreko adibidean bezala alde handia dago Iparraldeko eta Hegoaldeko datuen artean; izan ere, ehunekoaren beherakada askoz handiagoa da Iparraldeko hiztunen artean (ikus. 2. grafiko) azken hauetan baino. Beraz, adibide honetan ere ikus dezakegu *bina*-ren erabilera askoz altuagoa dela Debagoieneko hiztun hauetan Iparraldeko hiztunetan baino .


Aditzaren komunztadurari begira, esan bezala aditza pluralean erabiltzea eskatzen dute *bina* eta *bakoitzak bi* formek. Kasu honetan, *bina* erabili duten hiztunen artean bakarrik hiru hiztunek (*J.B.*, *G.A.* eta *I.B.S.* hiztunek) erabili dute aditza singularrean, askoz gutxiago aurreko *bana*-ren adibideekin alderatuz. *Bakoitzak bi* eredu erabili dutenen artean ere adibideren batean gutxienez 20tik 7 hiztunek aditza singularrean erabili dute.

- **3. eta 7. perpausak**

3. eta 7. perpausen itzulpenei dagokienez, hurrengo grafikoetan ikus daitekeenez, beherakada handiagoa ikus dezakegu *-na* atzizkiaren erabilera aurreko adibideekin konparatuz eta *hiru bakoitzak* erabiltzen duen hiztun kopuruan, ondorioz, igoera. Bestalde, kasu honetan ere banakaria beste distributibo batekin erabili duten hiztunak ditugu. Gainera, aurreko adibideetan bezala, badago hiztun bat 3. perpausaren itzulpena egiterakoan *bi* formak erabili dituen, beraz, 21 adibide izango ditugu aztergai.

-3. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices.*”). *Han visto tres películas por cabeza*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:


(9) 9. grafikoa



Aurreko perpaus honen adibideetan, esanguratsua da behingoagatik hiztun batek *por cabeza*-ren hitzez hitzeko itzulpena egin duela (*buruko*). Izan ere, orain arte aurreikusi bezala hau ez da horrela izan eta eredu honek *uno cada uno* ereduak baino *-na* atzizkiaren agerraldi askoz gehiago erakutsi dizkigu.

-7. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices.*). *Han visto tres películas cada uno*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(10) 10. grafikoa



Aurreko adibideekin alderatuta *-na* atzizkiaren erabilera jaitsi bada ere, adibide hauetan ere Iparraldeko hiztunekin alderatuta, *-na* atzizkiaren erabilera *hiru* zenbatzailearekin askoz altuagoa da Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera darabilten hiztunen artean. Gainera, esanguratsua da *-na* atzizkiaren erabilerak 7. perpausaren beherakada askoz handiagoa jasan duela 3. perpausarekin alderatuz. Hala ere, esan beharra dago joera berbera nabaritzen dela bai Iparraldeko hiztunen eta bai Aretxabaleta-Arrasate inguruko hizkera darabilten hiztunen artean. Izan ere, beherakada nabaritzen da *-na* atzizkiaren erabileran zenbatzailearen zenbakiak gora egiten duen heinean.

Aditz komunztadurari dagokionez, *hiruna* erabiltzen duten hiztunetarik lauk aditza singularrean aukeratu dute; hala ere, hiztun horietako batzuk ondoren eskaintako adibideetan plurala ere erabili dute. Ikusi adibidez *L.GA.*-ren adibide hauek: *hiruna pelikula ikusi dute* vs. *hiruna pelikula ikusi dauie*. Beraz, denarekin bezala, ezin dugu pentsatu adibide hauetan aditzaren komunztadura horrela sortu dutelako beti horrela erabiltzen dutenik edo ez dutenik araua ezagutzen.


- **4. eta 8. perpausak**

Emaitzekin bukatzeko, 4. eta 8. perpausen itzulpenetatik ateratako datuak aurkeztuko ditugu. Aipatzekoa da bi adibide hauen itzulpen ugaritan *nor/bakoitza bere kotxean* forma erabili dutela Aretxabaleta-Arrasateko hainbat hiztunek; zehazki, 20 hiztunetik 7k erabili dute forma hori.

Kasu honetan, bitxia da 4. perpausaren zein 8. perpausaren itzulpena egiterako orduan, batean zein bestean, ia hiztun guztiek itzulpen berdina egin dutela. Hau da, ia hiztun guztiek *por cabeza* erudian zein *cada uno* erudian adibide berberak jarri dituzte. Beraz, adibide hauetatik ateratako datuen emaitzak berdin-berdinak dira hurrengo grafikoetan ikus dezakegunez.


-4. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices.*”). *Se fueron en un coche por cabeza*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(11) 11. grafikoa



-8. perpausaren (“*Peio y Maddi están felices.*”) *Se fueron cada uno en un coche*”) itzulpenetatik ateratako emaitzak:

(12) 12. grafikoa



Adibide hauekin ikus dezakegu, banakariak hartzen duen funtzioa edozein delarik ere Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen datuak Iparraldekoekin alderatzean, *-na* atzizkiaren erabilera askoz ere handiagoa dela Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen artean. Hain zuzen ere, Iparraldeko hiztunen %2,17k soilik erabili dute *-na* atzizkia esaldi mota honetan Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen % 23,07aren aurka.

Bestalde, gogoratu Aretxabaleta-Arrasateko euskara darabilten hiztunei egiturak benetan ezagutu eta erabiltzen dituzten ziurtatzeko betetzeko eskatutako fitxaren amaieran *-na* atzizki distributiboa darabilten bi esaldi desberdinen adibideak eskaini dizkiegula. Egia esan, datu nahiko adierazgarriak lortu ditugu hemendik. Izan ere, datu huen arabera hiztunen ehuneko ehunak ezagutu eta erabiltzen ditu banakariak osagarri funtzioa dutenean. Banakariak adjunktuan kokatzen direnean, berriz, hiztunen ehuneko ehunak forma hori ezagutzen dutela adierazi arren, %40k bakarrik adierazi dute forma hori erabiltzen dutela.

4. ONDORIO OROKORRAK

Lan hau egiterakoan, gaztelaniazko eta euskarazko banakariak deskribatu eta sintaktikoki baldintza berdinak betetzen zituzten ikustea zen gure helburuetako bat, ondoren Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunen datuetan oinarrituz baldintza horiek gaur egungo hiztunek betetzen zituzten egiaztatzeko. Horretaz gain, gaztelaniazko *sendos* banakariak jasan duen galera ikusita, euskarazko banakarietan ere gaur egun joera berbera ageri den aztertzea zen beste helburuetako bat. Hau horrela, Hegoaldeko hiztunen datuak Iparraldeko hiztunen datuekin alderatuz Iparraldean banakariaren galera Hegoaldean baino

nabariagoa dela egiaztatu dugu. Izan ere, Aretxabaleta eta Arrasaten uste baino banakarien erabilera handiagoa sumatzen da.

Esan bezala, lan honetan euskal banakarien distribuzio baldintzak zeintzuk diren ikusi dugu eta ondoan daukagun hizkuntza batekiko konparazioa egin. Eztabaida teoriko hau oinarri gisa hartuta, Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunek eskainitako adibideen bitartez, banakarien erabilera zenbaterainokoa den eta egitura hau gaztelaniaz gertatu den bezala noraino galtzen ari den aztertu dugu.

Lanaren hasieran aztergai ditugun datuetatik ateratako emaitza eta ondorio nagusiak bilduko ditugu orain. Laburbilduz, oraintxe modu zabalago batean azalduko ditugun 3 ondorio nagusi atera ditugula esan genezake:

1) Euskara eta gaztelaniazko banakariak orokorrean gramatikalki baldintza antzekoak betetzen dituzten arren euskaraz banakariak emankorragoak dira.

2) Iparraldeko eta Aretxabaleta-Arrasateko hainbat hiztunek banakariak erabiltzerako orduan ez dituzte beti banakariak bete behar dituzten gramatika baldintzak betetzen.

3) Azkenik, Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen adibideek azaltzen dutenaren kontra, Iparraldeko hiztunen artean banakarien erabilera nahiko txikia dela.

Lehenengo eta behin, banakariak euskaraz eta gaztelaniaz gramatikalki antzeko baldintzak bete behar dituztela ikusi dugu. Zehazki, perpausean bi izen sintagma egotea eskatzen dute eta horietako bat aurrekari plurala (edo juntagailu kopulatiboaren bidez elkarturiko izen sintagma singularrak) izan behar da; hau da, banakaria modifikatzen duen sintagma o-komandatzen duen sintagma plural bat behar dugu (Alberdi et al. 2018). Horretaz gain, euskaraz eta gazteleraz banakariak osagarri eta adjunktuko posizioan egon daitezke; hala ere, euskaraz subjektu posizioan ere ager daitezke, baina soilik egitura jakin batzuetan. Esaterako, subjektu ergatiboekin ez dira bateragarriak eta subjektu absolutiboen kasuan ez beti, datiboa absolutiboaren aurretik agertzen denean soilik. Bestalde, ez dute

haien atzetik artikulua edo erakuslerik onartzen eta ez dute ahalbidetzen ondoko izena beste edozein prozeduraz mugatzea. Gainera, gorago aipatu dugun moduan distributiboak diren heinean ezin dira perpaus berean funtzio distributiboa duen beste forma batekin agertu.

Hala ere, desberdintasunak ere azaltzen dituzte euskarazko eta gaztelaniazko banakariak. Besteak beste, *sendos*-ek izena kuantifikatuko lukeen osagaiaren posizio bera hartzen badu ere ez du erreferentzia egiten dion izenaren kantitatea adierazten (Bosque, 1992, 61.or.); euskaraz berriz, bai. Izan ere, euskaraz banakariak *-na* atzizkia zenbatzaile bati lotuz sortzen dira eta, beraz, zenbatzailetik hartzen du banakariak adierazten duen kantitatea. Bestalde, aditz komunztadurari dagokionez, *bana*-k singularreko komunztadura izan ohi du eta hortik gorakoek, berriz, plurala (Alberdi et al. 2018, 436.or.), baina *sendos*-en kasuan beti komunztadura plurala izan behar (López, 1985, 78.or.).

Bi hizkuntza hauen arteko desberdintasun esanguratsuena, banakariaren emankortasunean topatu dugu. Izan ere, gaztelaniako *sendos* banakaria ez bezala oso atzizki emankorra dugu euskaraz: *zenbat* galdetzailearekin, *hainbat* zenbatzaile zehaztuarekin eta edozein zenbatzaile zehazturekin ager baitaiteke eta gainera, adberbio banatzaileak sortzeko aukera ere badago (Zubiri eta Zubiri, 1995, 146.or.). Horretaz gain, euskaraz *-na* atzizkia hitzunen artean distribuzioa egiteko beti aukerarik zabalduena ez den arren nahiko ohikoa da eta hizkera arruntean maiz entzungo dugu. *Sendos*-en erabilera, berriz, hizkuntza-maila jakin batzuetara mugatuta dago eta ez da batere ohikoa hizkera arruntean (Bosque eta Demonte, 1999).

Banakariak bete behar dituzten gramatika baldintzei dagokienez, bai Iparraldeko eta bai Aretxabaleta zein Arrasateko hitzun batzuen artean joera berdina nabaritu daiteke. Batetik, komunztadurari dagokionez, esan bezala *bana*-k singularreko komunztadura behar badu ere eta hortik gorakoek, berriz, plurala (Alberdi et al. 2018, 436.or.), hitzunek eskaintako adibide ugaritan *bana* aditz pluralarekin agertzen da eta hortik gorakoak singularrekin Alberdi eta bestek (2018) aurreratu bezala. Bestetik, gure hitzun ugarik eskaintako adibideetan, banakaria *bakoitza* distributiboarekin batera erabili dutela ikusi dugu. Hala ere, ikusi dugun moduan banakariak distributiboak diren heinean ez dute

onartzen perpaus berean beste distributiborik, baina Petrirenak (2011) aipatu bezala nahiko ohikoa da hiztunek horrela erabiltzea.

Ondorioekin amaitzen joateko, aztergai ditugun Iparraldeko eta Debagoieneko hiztunen banakariaren erabilerari erreparatuko diegu. Honi buruz, bi kontu azpimarratu nahiko genituzke. Batetik, Iparraldeko eta Aretxabaleta-Arrasateko hiztunetan joera berdina ikusten dela banakariari lotuta doan zenbatzailearen zenbakiak gora egin duen heinean edota adjunktua posizioan agertzen denean. Izan ere, zenbakiak gora egiten duen neurrian edo adjunktua denean banakariaren erabilera jaisten da bi hiztun multzoetan.

Bestetik, Iparraldeko eta Aretxabaleta-Arrasateko hiztunek banakariak zenbat erabiltzen dituzten konparatzen badugu, gure usteen aurka joera desberdinak topatuko ditugu. Izan ere, kasu honetan Iparraldeko hiztunek eskainitako lau perpaus motetan banakariaren erabilera oso baxua ikusi dugu Aretxabaleta-Arrasateko hiztunekin alderatuz. Beraz, datu hauekin Iparraldean banakariak indarra galtzen ari diren bitartean Debagoienan oraindik dezente indartsu mantentzen direla ondoriozta dezakegu. Horrekin batera, gaztelaniazko *sendos* banakariarekin gertatutakoaren kontra, euskarazko banakariak oraindik Euskal Herrian nahiko indartsu mantentzen direla esan dezakegu.

Horretaz aparte, gorago planteatutako hipotesira itzuliz, izan daiteke Iparraldeko hiztun gazteen artean (30 urtetik beherakoak) *-na* atzizkiaren erabilera apurtxo bat berreskuratzen egotea. Izan ere, *-na* atzizkia erabili duten Iparraldeko hiztun gehienak 30 urtetik beherakoak dira. Hasieran, hau murgiltze sisteman eskolaratuta egoteagatik izan zitekeela pentsatu genuen, baina gure ustearen kontra hiztun horiek frantsesez eskolaratutakoak ziren. Horregatik, ziurtasun osoz ez bada ere pentsa genezake gazteen artean banakariaren erabilera apur bat berreskuratzen ari dela honen aldeko arrazoia zein den argi ez dagoen arren. Hala ere, ez dugu ahaztu behar lagin txiki baten gainean gabiltzala lanean eta ezin dugula emaitzekin gehiegi orokortu.

Lan honekin amaitu baino lehen, beste kontu bat azpimarratu nahiko genuke. Aretxabaleta-Arrasateko hiztunei eskainitako inkesta prestatzerakoan ohartu ginen oso

garrantzitsua zela itzultzeko eskatuko genizkien esaldi ereduak tentuz sortzea. Hortaz, egiaztatu dugun moduan eskainitako perpaus motak asko baldintzatu dezake egin beharreko itzulpena. Bestalde, zenbatzaileak gora egin ahala banakarien erabilera jaisten dela ikusita interesgarria litzateke ikastetxe edo eskoletan eta euskarazko testu liburuetan banakariak deskribatzerakoan *bat* zenbatzailetik gorakoekin gehiago lan egitea, eta horrekin batera adjunktuekin ere.

Amaitzeko, berriz ere gogoratu nahiko genuke aztergai izan dugun lagina txikia dela eta edozein aldaketa txikik aldaketa handiak ekar ditzakeela ehunekoetan. Beraz, orain arte egindako orokorpenak tentuz hartzea komeni da. Bestalde, gogoan izan behar dugu hiztunek emandako adibideetan forma bat edo bestea erabiltzeak ez duela esan nahi kontrakoa erabili edo ezagutzen ez dutenik. Hala ere, datuetatik ateratako emaitzek nahiko joera garbia erakusten dute. Beraz, espero dugu etorkizunean ikerketatxo hau oinarri gisa baliagarria izatea gai honetan interesa duen edozein adituk ikerketa sakonago bat egiteko eta euskararen irakaskuntzan dihardutenentzat ere banakarien gaia lantzen dutenean lagungarri izatea.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alberdi, A. et al. (2018) *Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE): A-Tik Z-ra, zalantzak eta argibideak*; Euskaltzaindia: Bilbo, 430-441.
- Bosque, I. (1992) “Anáforas distributivas. La gramática de *sendos*”, *Miscelánea Antverpiensia. Homenaje al vigésimo aniversario del Instituto de Estudios Hispánicos de la Universidad de Amberes*; N. Cartagena eta C. Schmidt: Niemeyer Tubinga, 59-92.
- Bosque, I. eta Demonte, V. (1999) *Gramática descriptiva de la lengua española I*; Espasa Calpe: Madril.
- Franco, E. (2019) *Zenbatzaile lausoen komunztadura-aldakortasuna Iparraldeko euskaran (GrAL)*; EHU: Gasteiz.

- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2009) “Zenbatzaileak komunztatzen ez direnean: Hiru sistema”. *Lapurdum*, 13: 127-144.
- Euskaltzaindia. (1991) *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I* (EGLU I); Euskaltzaindia: Bilbo, 137-139.
- Euskaltzaindia. (1993) *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Euskaltzaindia: Bilbo, 103-104.
- Euskara Institutua, EHU, "Distributiboak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3 [2022-3-24]
- Lopez, E. (1985) “Las oraciones distributivas: la gramática de *cada*”, *Cuadernos de filología hispánica*; Univ. Complutense: Madril, 57-83.
- Oyharçabal, B., J. Salaberria eta I. Epelde (2011) *Norantz datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak*, in I. Epelde (arg.) *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. *ASJU*ren gehigarriak LXIX; Euskal Herriko Unibertsitatea: Bilbo, 1-36.
- Petrinera, P. (2011) *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*; Ikasmaterialen Aholku Batzordea (EIMA)-Eusko Jaurlaritza: Gasteiz, 133-135.
- Zubiri, I. eta Zubiri, E. (1995) *I. Euskal Gramatika Osoa*, 2. argit.; Didaktiker: Bilbo, 137-172.

I. ERANSKINA¹¹

- NORANTZ: Bilaketaren emaitzak (profil linguistikoak).

	Hiztuna	Adina	Lehen hizkuntza	Eskolaratze eredua	Bizilekua
1	ESHEN	+70	E	F	HIRX
2	JABI	+70	E	F	HIR
3	MADON	+70	E	F	BAS
4	LOUSEN	+70	E	F	BAS
5	GERBAR	+70	E	F	BAS
6	XALEZ	+70	E	F	BAS
7	ANIZ	+70	E	F	BAS
8	MAIHE	+70	E	F	HIR
9	BELU	+70	E	F	HIR
10	REES	+70	E	F	BAS
11	PIEPA	+70	E	F	HIR
12	PIEGE	+70	E	F	BAS
13	JOBAN	+70	E	F	HIR
14	ABDAR	+70	E	F	HIR
15	XLEAHA	+70	E	F	HIR
16	JEDON	40-60	E eta F	F	HIRX
17	RAZI	40-60	E	F	HIRX
18	YOSAN	40-60	E	F	BAS
19	PIMUS	40-60	E	F	HIR
20	GRAAR	40-60	E	F	HIRX
21	XALAI	40-60	E	F	BAS
22	KOBA	40-60	E	F	HIR
23	MOBA	40-60	E	F	HIR
24	BERLA	40-60	E	F	HIRX
25	MIMU	40-60	E	F	BAS

11 Laburdurak: E= Euskara; F=Frantsesa; MS= Murgiltze Sistema; HIR=Hiria; HIRX=Hirixka; BAS=Baserria.

26	KADO	40-60	E	F	BAS
27	EHI	40-60	F (E heldutan)	F	HIR
28	MAAL	-30	E	F	BAS
29	SEAI	-30	E	F	BAS
30	XAAN	-30	F (E heldutan)	F	HIR
31	XABAI	-30	E	F	HIR
32	LAUSA	-30	F (E heldutan)	F	BAS
33	IOSEN	-30	E	MS	HIRX
34	ANHAZ	-30	E	MS	HIRX
35	BEDO	-30	F (E belarriz)	F	BAS
36	MAIAZ	-30	E	MS	HIRX
37	NAZI	-30	E	MS	HIRX
38	AKAN	-30	F (E eskolan)	MS	HIRX
39	EHEN	-30	E	MS eta F	HIRX
40	PABA	-30	F	MS	HIR
41	JOAI	-30	E	MS eta barnategia	BAS
42	PANZI	-30	F	F	HIRX
43	JOSA	-30	F	MS	BAS
44	MAIE	-30	E	E	BAS
45	LUIDO	-30	E eta F	MS eta barnategia	HIRX
46	NAMAU	-30	E	F eta E	BAS
47	IBA	-30	E	MS	HIR
48	KABA	-30	E	MS	HIR
49	PEOLO	-30	F (E aitona-amonekin)	F	HIRX eta BAS
50	JOAINH	-30	E eta F	F	BAS
51	GORBA	-30	F	MS	HIR
52	ABE	-30	E eta F	MS	BAS
53	AIBA	-30	E	MS	HIR
54	XILA	-30	E	F eta E	BAS
55	ALAZI	-30	E	E eta F	HIRX

56	MIMI	-30	E	MS	BAS
57	KAU	-30	E	F	BAS
58	IBAI	-30	F	MS	HIR
59	MAILA	-30	E eta F	F	BAS

II. ERANSKINA

- NORANTZ: Bilaketaren emaitzak (hiztunen adibideak)

C.5. Joskera > Banaketariak

C99— (Peio et Maddi sont content.) Je leur ai donné chacun un livre.

C100 — (Peio et Maddi sont content.) Ils ont mangé chacun deux pommes.

C101 —(Peio et Maddi sont content.) Chacu des deux a vu trois films.

C102 — (Peio et Maddi sont content.) Ils sont partis chacun dans une voiture.

1. ESHEN
 - C99**—Peio ta Maddi konten die. Eman diotet liburu bat bakotxari.
 - C100** —Bakotxak jan tuzte bi sagar.
 - C101** —Peio ta Maddi konten dire, bakotxak ikusi dituzte iru filma.
 - C102** —Peio ta Maddi konten die, gan die bakotxa ben otomoillian.
2. JABI
 - C99**—Peio ta Maddi kontent dira. Eman diotet bakotxari liburu bat.
 - C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
 - C101** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak iru filma ikusi dituztelakotz.
 - C102** —Bakoitza oto batean joan da.
3. MADON
 - C99**—Peio eta Maddi kontent tie, bakotxari liburu bana eman diotet.
 - C100** —Peiok eta Maddik jan tuzte bina saar.
 - C101** —Iru filma ikusi tuzte Peiok eta Maddik.
 - C102** —Ta gero gan die bakotxak ben otomobilekin.
4. LOUSEN
 - C99**—Peio eta Maddiri bakarrari liburu bat eman diotet.
 - C100** —Peio eta Maddi konten die ta bakarrak bi sagarra jan tuzte.
 - C101** —Iru filma ikusi dituzte bakarrak.
 - C102** —Peio ta Maddi konten tie ta bakotxa beren otoan gan dire.
5. GERBAR
 - C99**—Peio eta Maddi kontent tützü. Eman diet, bakotxai libüü bat.
 - C100** —Peio eta Maddi kontent tützü. Jan dizie bakotxak bi sagar.

- C101** —Peio eta Maddi kontent tützü. Bakotxak ikhusi dizie hiru filma.
- C102** —Peio eta Maddi kontent tützü. Jun tützü bakotxa botüa batetan.
6. XALEZ **C99**—Peio et Maddi biziki kontent tia, da liburu bana badiotet emana.
- C100** —Peio et Maddi biziki kontent tia, biek jan dute saar bana.
- C101** —Pello et Maddi biziki kontent tira ikusi dituztelakotz hiru filma.
- C102** —Peio et Maddi biziki kontent tira joan dira bakotxa bere otoetan.
7. ANIZ **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Eman diotet bedera liburu.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira bira saar jan dute.
- C101** —Peio et Maddi kontent dira. Bakotxak ikhusi diuzte hiru filma.
- C102** —Maddi eta Peio kontent dia. Partitu dira bakotxa bere otoetan.
8. MAIHE **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman diotet.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak jan dituzte bi sagar.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak ikusi ditu hiru filma.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa oto batean joan dira.
9. BELU **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman dazkotet.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi saar jan tuzte.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi film ikusi dituzte.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa bere otoan joan dira.
10. REES **C99**—Pellok erran deitazü kontent diela. Eman diet bakoitxai lübüü bat.
- C100** —Pollok erran deitazüt kontent ziela. Bakotxak jan ziela bi sagar.
- C101** —Pollok erran deitazüt kontent ziela. Bakotxak ekhusi zila hiru filma.
- C102** —Pollok erran deitazüt kontent ziela. Bakotxak jun ziela oto batetan.
11. PIEPA **C99**—Peio eta Maddi kontent dia. Bakotxai eman deiot librü bat.
- C100** —Peio eta Maddi konten tia. Bakotxak jan dü bi sagar.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dia. Bakotxak ikhusi beitü hiru *filme.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa partitü da oto batetan.
12. PIEGE **C99**—Pello ta Maddi konten dira. Liburu bana eman diotet.
- C100** —Pello ta Maddi konten dira. Bakotxak bi sagar jan dituzte.
- C101** —Pello ta Maddi konten dira. Bakotxak iru filma ikuxi ditu.
- C102** —Pello ta Maddi konten dira. Bakotxa beren otoan partitu dira.

13. JOBAN **C99**—Peio eta Maddi kontent tira. Bakotxari eman dut liburu bat.
C100 —Peio eta Maddi kontent tira. Jan diuzte bakotxak bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi kontent tira. Bakotxak ikusi tu hiru filma.
C102 —Peio ta Maddi kontent tira. Bakotxa joan da oto batean.
14. ADBAR **C99**—Peio eta Maddi kontent dira bakotxari eman dut libru bat.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira, bakotxak jan dütü bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira, bakotxak ikusi dütü hiru filma.
C102 —Peio eta Maddi kontent dira. Joan dira bakotxa oto batetan.
15. XLEAHA **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Eman deit bakotxari liburu bat.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak jan ditu bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak ikhusi ditu hiru filma.
C102 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa joan dira oto batetan.
16. JEDON **C99**—Eman diotet bakotxari liburu bat.
C100 —Peio ta Maddi konten dire. Bakotxak bina saar jan dituzte.
C101 —Maddi ta Peio konten dire. Bakotxak iruna filma ikusi dituzte.
C102 —Pello ta Maddi konten dire. Bakotxa ben otoan izan dira.
17. RAZI **C99**—Bakotxari liburu bat eman diot.
C100 —Bakotxak bi sagar jan ditu.
C101 —Bietatik bakotxak iru filma ikusi ditu.
C102 —Bakotxa auto batean joan die.
18. YOSAN **C99**—Peio eta Maddi kument tützü. Eman diet bakotxai librü bedea.
C100 —Peio ta Maddi kument tützü. Bakotxak jan dizi bi sagar.
C101 —Peio ta Maddi kument tützü. Bakotxak ikhusi dizü hiru filma.
C102 —Peio ta Maddi kument tützü. Bakotxa jun düzü oto batetan.
19. PIMUS **C99**—Peio eta Maddi kontent dia. Bakotxai librü bat eman dit.
C100 —Peio eta Maddia konten dia. Bakotxak bi sagar jan tü.
C101 —Peio eta Maddi kontent dia. Bakotxak hiru filma ikhusi tie.
C102 —Peio eta Maddi kontent dia. Bakotxak oto batetan jun dia.
20. GRAAR **C99**—Maddi ta Peio kontent dira, bedera liburu eman deet.

- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bi sagarna jan dituzte.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Hiru filmana ikusi dituzte.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira, bakotxa oto batean partitu da.
21. XALAI **C99**—Bakotxari liburu bat eman deiet.
- C100** —Bakotzak bi sagar jan ditu.
- C101** —Hiruna filma ikusi dute.
- C102** —Bana ototan joan dira.
22. KOBBA **C99**—Peio ta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman eta.
- C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakotzak jan-eta bi sagar.
- C101** —Peio ta Maddik kontent dira bakotzak ikusi-ta iru filma.
- C102** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakarra oto batean joan da.
23. MOBA **C99**—Peio eta Maddi kontent dira, bakotxari liburu bat eman dut.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira, bakotzak jan du bi sagar.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira, bakotzak ikusi du iru filma.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira, bakotxa auto batian joan da.
24. BERLA **C99**—Peio eta Maddi konten dira. Bakotxari eman diet liburu bat.
- C100** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotzak jan dituzte bi sagar.
- C101** —Peio ta Maddi konten dira. Bakotzak ikusi ditu hiru filma.
- C102** —Peio ta Maddi konten dira. Joan dira bakotzak oto batean.
25. MIMU **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman diotet.
- C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakotzak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotzak hiru filma ikhusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi kuentent dira. Joan dira bakotxa oto batean.
26. KADO **C99**—Maddi eta Peio kontent dira. Eman dut bakotxari liburu bat.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotzak jan dituzte bi sagar.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotzak ikusi dituzte iru filmak.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotzak joan dira oto batetat.
27. EHI **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Liburu bana eman diet.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotzak jan du bi sagar.

- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitzak ikusi du iru filma.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitza joan da auto baterat.
28. MAAL **C99**—Peio eta Maddi kunte tützü. Bakotxai librü bat eman dit.
- C100** —Peio eta Maddi kunte tützü. Bakotxak sagar bat jan dizie.
- C101** —Peio eta Maddi kunte dütützü. Bakotxak ikhusi dizu hiu filma.
- C102** —Peio eta Maddi kunte dütützü. Bakotxa jun düzü oto batetan.
29. SEAI **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman diet.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak iru filma ikusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa auto batean joan da.
30. XAAN **C99**—Peio ta Maddi kontent dira. Bakoitzari liburu bat eman diot.
- C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakoitzak bi filma ikusi ditu.
- C102** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakoitza joan da auto batean.
31. XABAI **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman dizkiet.
- C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bi sagar jan dituzte bakotxak.
- C101** —Peio ta Maddi kontent dira. Iru filma ikusi dituzte bakotxak.
- C102** —Peio ta Maddi kontent dira. Bakotxa auto baten joan dira.
32. LAUSA **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitxari liburu bat eman diet.
- C100** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi konten dira. Bakoitxak iru filma ikusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak joan da auto batean.
33. IOSEN **C99**—Peio eta Mai kontent dira. Bakotxari liburu bat eman diet.
- C100** —Peio eta Mai kontent dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak hiru filma ikusi dituzte.
- C102** —Peio eta Mai kontent dira. Bakotxa auto batean joan dira.
34. ANHAZ **C99**—Peio eta Maddi konten dira. Liburu bana eman diet.
- C100** —Peio eta Maddi konten dira. Bokotxak bi sagar jan dituzte.

- C101** —Peio eta Mai kontent dira. Bakotxak iru filma ikusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxa bee otoaikin joan dira.
35. BEDO **C99**—Bakotxari eman dut liburu bat.
- C100** —Peio eta Maddi pozik dira, bakotxak bi sagar jan baitituzte.
- C101** —Peio ta Maddi pozik dira. Bakotxak iru filmetaik biga ikusi baitiuzte.
- C102** —Peio ta Maddi pozik dira, bakotxa bere otoan joan baitira.
36. MAIAZ **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitzari liburu bat eman diot.
- C100** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi xagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak iru filme ikusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotsa auto batean joan da.
37. NAZI **C99**—Bakotxari liburu bat eman diet edo liburu bana eman diet.
- C100** —Bakotxak bi sagar jan ditu.
- C101** —Bakotxak iru film ikusi ditu.
- C102** —Bakotxa auto batean joan da. Auto banatan joan dira.
38. AKAN **C99**—Peio eta Maddi konten dira. Bakotxari liburu bat eman diet.
- C100** —Bakotxak sagar bat jan du.
- C101** —Bakotxak iru filma ikusi ditu.
- C102** —Bakotxa oto batean joan da.
39. EHEN **C99**—Bakoitzari liburu bat eman diet.
- C100** —Bakoitzak bi sagar jan dituzte.
- C101** —Bakoitzak iru film ikusi ditu.
- C102** —Bakotxak auto batean joan dira.
40. PABA **C99**—Peio eta Maddi uros dira. Bakotxeri liburu bat eman diet.
- C100** —Peio eta Maddi uros dira. Bakotxak bi sagar jan dituzte.
- C101** —Peio eta Maddi uros dira. Aiek bakotxak iru filme ikusi dituzte.
- C102** —Peio eta Maddi uros dira. Bakotxak auto batean joan dira.
41. JOAI **C99**—Bakotxari liburu bat eman dakot.
- C100** —Peio ta Maddi konten dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
- C101** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak iru filma ikusi ditu.
- C102** —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxa oto batian joan dira.

42. PANZI **C99**—Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitzari liburu bat eman diot.
C100 —Peio eta Maddi pozik tira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio eta Maddi pozik tira. Bakoitzak iru filma ikusi ditu.
C102 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitza auto batean abiatu da.
43. JOSA **C99**—Peio ta Maddi pozik dira. Bakoitzari liburu bat eman diet.
C100 —Peio ta Maddi pozik dira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio ta Maddi pozik dira. Bakoitzak iru filma ikusi ditu.
C102 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitza auto batean joan dira.
44. MAIE **C99**—Peio eta Maddi pozik dira, bakotxari liburu bat eman diot.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxak iru filma ikusi ditu.
C102 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxak bere autoa artu du.
45. LUIDO **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxari liburu bat eman diet.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak bi sagar jan dituzte.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak iru filma ikusi dituzte.
C102 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitza auto batean partitu dira.
46. NAMAU **C99**—Peio eta Maddi ius dia eman diet bakotxai liburu bat.
C100 —Peio eta Maddi ius dia, jan dizie bakotxak bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi ius dia, bakotxak bietaik ikhusi die hiru filma.
C102 —Peio eta Maddi ius dia. Jun tützü bakotxak oto batetan.
47. IBA **C99**—Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitzari liburu bat eman diet.
C100 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitzak iru filma ikusi ditu.
C102 —Peio eta Maddi pozik dira. Bakoitza oto batean joan da.
48. KABA **C99**—Peio eta Maddi kontent dira bakotxari eman diot liburu bat.
C100 —Peio ta Maddi kontent dira. Bakotxak jan ditu bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira, bakotxak iru filma ikusi dituzte.
C102 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxak joan dira oto batean.

49. PEOLO **C99**—Peio eta Maddi kunte tützü. Eman diet bakotxak librü bat.
C100 —Peio eta Maddi kunte tützü. Bakotxak jan dizie bi sagar.
C101 —Peio eta Maddi kunte tützü. Bakotxak hiu film so egin die.
C102 —Peio eta Maddi kunte tützü. Bakotxak jün tützü oto batetan.
50. JOAINH **C99**—Liburu bana eman diet.
C100 —Bakotxak bi sagar jan du.
C101 —Bakotxak iru filma ikusi du edo iruna filma ikusi dute.
C102 —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxa auto batean gan da.
51. GORBA **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitzari liburu bat eman diot.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitzak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitzak iru filma ikusi ditu.
C102 —Peio eta Maddi kontent dira bakoitza auto batean sartu dira.
52. ABE **C99**—Peio ta Maddi konten dira. Liburu bat eman diet bakotxari.
C100 —Peio ta Maddi konten dira, bakotxak bere sagarra jan baitu.
C101 —Peio eta Maddi konten dira. Biek iru filma ikusi ituzte.
C102 —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxa joan da auto batean.
53. AIBA **C99**—Bakotxai liburu bat eman diet.
C100 —Bakotxak bi sagar jan dituzte.
C101 —Bakotxak iru filme ikusi dituzte.
C102 —Bakoitza auto batetara joan dira.
54. XILA **C99**—Peio eta Maddia konten tützü, bakotxer eman dit librü bat.
C100 —Peio eta Maddia kontent tützü, bakotxak jan dizie sagar bat.
C101 —Peio eta Maddia konten tützü, bakotxak hiu filma ikusi dizie.
C102 —Peio eta Maddia kontent tützü, bakotxa jun tützü oto batetan.
55. ALAZI **C99**—Peio eta Maddi konten dira. Bakotxari liburu bat eman diet.
C100 —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxak bi sagar jan ditu.
C101 —Peio eta Maddi konten dira. Bietarik bakotxak ikusi ditu iru filma.
C102 —Peio eta Maddi konten dira. Bakotxa oto batean joan da.
56. MIMI **C99**—Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitxari liburu bat eman diet.
C100 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitxak bi sagar jan dituzte.
C101 —Peio eta Maddi kontent dira. Bakoitxak iru filma ikusi dituzte.

- C102** —Peio eta Maddi kontent dira. Bakotxa auto batekin joan dira.
57. KAU **C99**—Peio ta Maddi kontent dira. Liburru bana eman deet.
- C100** —Peio ta Maddi kontent dira. Bina saar jan dituzte.
- C101** —Peio ta Maddi kontent tira. Hiruna filma ikusi dituzte.
- C102** —Peio ta Maddi kontent tira. Bakotxa oto batian joan dira.
58. IBAI **C99**—Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxari liburu bat eman dut.
- C100** —Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxak bi sagar jan dute.
- C101** —Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxak iru filma begiratu ditu.
- C102** —Peio eta Maddi pozik dira. Bakotxa oto batean joan dira.
59. MAILA **C99**—Peio eta Maddi konten tützü. Eman diet bakhotxai librü bat.
- C100** —Peio eta Maddi konten tützü. Biek sagar bat jan dizie.
- C101** —Peio eta Maddi kontent tützü. Biek hiu filma ikhusi dizie.
- C102** —Peio eta Maddi konten tützü. Biak jun tützü bi otoetan.

III. ERANSKINA¹²

- Aretxabaleta-Arrasateko hiztunen datu eta adibideak.

Gazteleraz eskainitako adibideak:

1. (Peio y Maddi están felices.) Les di un libro por cabeza.
2. (Peio y Maddi están felices.) Se comieron dos manzanas por cabeza.
3. (Peio y Maddi están felices.) Han visto tres películas por cabeza.
4. (Peio y Maddi están felices.) Se fueron en un coche por cabeza.
5. (Peio y Maddi están felices.) Les di un libro a cada uno.
6. (Peio y Maddi están felices.) Se comieron dos manzanas cada uno.
7. (Peio y Maddi están felices.) Han visto tres películas cada uno.
8. (Peio y Maddi están felices.) Se fueron cada uno en un coche

	Adina	Eskolaratze eredua	Bizilekua	Ama hizkuntza	Adibideak:
1. B.G.	-30	E	Kanpo	E	1. Liburu bana emun nutzien 2. Bina sagar sagar jan euien 3. Hiruna pelikula ikusi dittuzte 4. Bakoitza bere kotxian fan zan 5. Liburu bana emun nutzien 6. Bina sagar jan euien 7. Hiruna pelikula ikusi dittuzte 8. Bakoitza bere kotxian fan zan
2. O.I.	-30	E	Kanpo	E	1. Bakoitzai liburu bat emun notzen 2. Bi sagar jan zitxusten bakoitzak 3. Hiru pelikula ikusi dauie bakoitzak 4. Bakoitza kotxe baten fan zan 5. Bakoitzai liburu bat emun notzien 6. Bakoitzak sagar bi sagar jan zitxusten 7. Hiru pelikula ikusi dauie bakoitzak 8. Bakoitza kotxe baten fan zan
3. I.BE.	-30	E	Ar	E	1. Liburu bana emun nutzien 2. Bina sagar jan euien 3. Hiruna pelikula ikusi dittue 4. Bakotxa bere kotxien fan zan 5. Bakotxai liburu bat emun nutzen 6. Bakotxak bi sagar jan zittuen

12 Laburdurak: E= Euskara; G= Gaztelania; Ar=Aretxabaleta, Arrasate edo inguruan; Kanpo=Aretxabaleta, Arrasate edo ingurutik kanpo.

					7. Bakotzak hiru pelikula ikusi dittu 8. Bakotxa bere kotxien fan zan
4. J.B.	-30	E	Kanpo	E	1. Bakoitzai liburu bana emun nutzen 2. Bakoitzak bi sagar jan zituzten 3. Bakoitzak hiruna pelikula ikusi zituzten 4. Baikotza bere kotxian fan zan 5. Bakoitzai sagar bana emun nutzen 6. Bakoitzak bina sagar jan zituen 7. Bakoitzak hiruna pelikula ikusi zituen 8. Bakoitza bere kotxian fan zan
5. H.G.	-30	E	Kanpo	E	1. Liburu bana emun nutzien. 2. Bina sagar jan zittuzten. 3. Hiruna pelikula ikusi dittuzte.. 4. Nor bere kotxian fan zan 5. Bakoitzai liburu bat emun nutzen. 6. Bakoitzak bi sagar jan zittuen. 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dittu. 8. Bakoitza bere kotxian fan zan.
6. M.G.	-30	E	Kanpo	E	1. Liburu bana emun nutzen bakoitzai 2. Bina sagar jan zittuzten 3. Hiruna pelikula ikusi dittuzte 4. Bakoitza kotxe batian fan zan 5. Liburu bana emun nutzen 6. Bina sagar jan zauen bakoitzak 7. Hiru pelikula ikusi dittu bakoitzak 8. Bakoitza kotxe batian fan zan
7. N.R.	-30	G	Ar	G	1. Liburu bana emun neutzien 2. Sagar bina jan euien 3. Hiruna pelikula ikusi ditxuzte 4. Norberan kotxian juen zien 5. Bakotxai liburu bat eman neutzien 6. Bakotzak bi sagar jan zitxuzten 7. Bakotzak hiru pelikula ikusi ditxuzte 8. Bakotxa bere kotxien juen zan
8. J.O.	-30	E	Ar	E	1. Buruko liburu bana emun nutzien 2. Buruko bina sagar jan euien 3. Buruko hiru pelikula ikusi daue 4. Kotxe banatan fan zien 5. Bakoitzai liburu bana emun nutzen 6. Bakoitzak biña sagar jan euien 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi daue 8. Kotxe banatan fan zien

9. Z.L.	-30	E	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bakoitzai liburu bat emun nutzien 2. Bakoitzak bi sagar jan zauien 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dauie 4. Bakoitza kotxe baten fan zan 5. Liburu bat emun notzien bakoitzai 6. Bakoitzak bi sagar jan zauien 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditxu 8. Bakoitza kotxe baten fan zan
10. I.A.	-30	E	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bakoitzai liburu bat eman nutsen 2. Bi sagar jan zittuen bakoitzak. 3. Hiru pelikula ikusi dittu bakoitzak. 4. Bakoitza kotxe baten fan zan. 5. Liburu bat eman notsan bakoitzai 6. Bakoitzak bi sagar jan zittuen 7. Hiru pelikula ikusi dittu bakoitzak 8. Bakoitza kotxe baten fan zan
11. H.I.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bakotxari liburu bat emon nutzien 2. Bakotxak bi sagar jan zittuen 3. Bakotxak hiru pelikula ikusi ditu 4. Peio eta Maddi zorionsu daz. Bakotxa bere kotxien fan zan 5. Bakotxari liburu bana emon nutzen 6. Bakotxak bi sagar jan zittuen 7. Bakotxak hiru pelikula ikusi ditu 8. Bakotxa bere kotxien fan zan
12. G.A.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun nutsien 2. Bina sagar jan zittuen 3. Bakoitzak hiruna pelikula ikusi dittue 4. Kotxe banatan joan ziren 5. Liburu bana emun nutsien 6. Bina sagar jan zittuen 7. Hiruna pelikula ikusi zittuen 8. Kotxe banatan joan ziren
13. N.B.	40-70	G eta E	Kanpo	G eta E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun notzien 2. Bakoitzak bi sagar jan zittuzten 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dittuzte 4. Bakoitza kotxe baten fan zan 5. Bakoitzai liburu bat emun notzen 6. Bakoitzak bi sagar jan zauen 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dittu 8. Bakoitza kotxe baten fan zan

14. J.G.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bakoitzari liburu bat emun nutzien 2. Bakoitzak bi sagar jan euien 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditto 4. Bakoitza kotxe baten joan zien 5. Liburu bana emun nutzien 6. Bakoitzak bi sagar jan euien 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditto 8. Bakoitza kotxe baten joan zien
15. J.G.A.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun nutzien 2. Bi sagar jan euien bakoitzak 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditue 4. Bakoitza kotxe batean joan zen 5. Liburu bana emun nutzien bakoitzai 6. Bakoitzak bi sagar jan euien 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditu 8. Bakoitza kotxe batean joan zen
16. I.BS.	40-70	G	Ar	G	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun notzien 2. Bina sagar jan zuten 3. Hiruna pelikula ikusi dute 4. Bakoitza kotxe baten fan zan 5. Bakoitzari liburu bat emun notzan 6. Bakoitzak bi sagar jan zituen 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditu 8. Bakoitza kotxe baten fan zan
17. L.G.A.	40-70	G eta E	Kanpo	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana eman neutzen 2. Bina sagar Jan zauden. 3. Hiruna pelikula ikusi dute. 4. Kotxe banatan jun zien 5. Bakoitzari liburu bat eman nion. 6. Bina sagar Jan zaiuen. 7. Hiruna pelikula ikusi dauie. 8. Kotxe banatan jun zien.
18. A.P.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun nutzien 2. Bakoitzak bi sagar jan zituen 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditu 4. Bakoitza automobil baten joan zan 5. Liburu bana eman nien 6. Bakoitzak bi sagar jan zittuen 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi ditu 8. Bakoitza automobil baten joan zan

19. E.B.	40-70	G	Ar	G	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bakoitzai libur bat emun nutzen (liburu bana emun nutzen ta) 2. Bakoitzak bi sagar jan zittuen (Bina sagar jan euien ta) 3. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dittu (Hiruna pelikula ikusi dauie ta) 4. Bakoitza bere kotxian fan zan 5. Bakoitzai liburu bat emun nutzen 6. Bakoitzak bi sagar jan zittuen 7. Bakoitzak hiru pelikula ikusi dittu 8. Bakoitza bere kotxian fan zan
20. L.GO.	40-70	G	Ar	E	<ol style="list-style-type: none"> 1. Liburu bana emun nutzien 2. Bina sagar jan euien 3. Hiruna pelikula ikusi dauie 4. Bakotxa kotxe baten fan zan 5. Liburu bana emun nutzien 6. Bina sagar jan euien 7. Hiruna pelikula ikusi dauie 8. Bakotxa kotxe baten fan zan

IV. ERANSKINA

- Aretxabaleta-Arrasateko hitzunei eskainitako fitxa.

Gradu amaierako lana egiten ari naizen Euskal Ikasketetako ikaslea nauzue. Aretxabaleta eta Arrasateko euskaraz hitz egiten duzu eta euskara sakonago ikertzeko ikerketa txiki batean parte hartu nahi duzu? Bete ezazu orduan fitxa labur hau guri laguntzeko!

Ohar garrantzitsua: **eskainitako adibideak erabiliko dira lana egiteko, baina emandako gainontzeko datuen anonimotasuna gordeko da betiere.**

Izena: _____
Adina: _____
Zein hizkuntzatan izan ziren eskolaratua? _____
Bizilekua: _____
Ama hizkuntza (lehen hizkuntza): _____

Azpimarraturik dituzu euskaratu beharreko perpausak (garrantzitsua da agertzen diren

ordenan erantzutea):

1. (Peio y Maddi están felices.) Les di un libro por cabeza.

2. (Peio y Maddi están felices). Se comieron dos manzanas por cabeza.

3. (Peio y Maddi están felices.). Han visto tres películas por cabeza.

4. (Peio y Maddi están felices.) Se fueron en un coche por cabeza.

5. (Peio y Maddi están felices.) Les di un libro a cada uno.

6. (Peio y Maddi están felices). Se comieron dos manzanas cada uno.

7. (Peio y Maddi están felices.). Han visto tres películas cada uno.

8. (Peio y Maddi están felices.) Se fueron cada uno en un coche

Amaitzeko, ezagutzen dituzu esaldi mota hauek?

1-Anek eta Laurak liburu bana/ bina / hiruna... hartu dute/dituzte. Bai / Ez

2- Ane eta Laura alde banatan jarri ziren. EDO Ane eta Laura kotxe banatan joan ziren.

Bai / Ez

Eta erabili?

1. Bai / Ez

2. Bai / Ez